

Herririk Herri [3]

Ekonomia |10|



Berbaz | 9 |

Alfonso Akesolo: "Huntington gatxa ezagutarazoteko elkartea sortu dogu"

IV. Plateruena Skate Txapelketa patinatzaile eta zaleen topaleku

- Plateruenak skatearen jaia antolatuko dau maiatzaren 1etik 2ra. Datorren barikuan afizionatu eta profesionalek kafe antzokian jardungo dabe.
- Zapatuan, barriz, Landako erakustazokan 25 metroko Mini Rampa egokituko dabe. 60 bat patinatzaile profesional etorriko dira Durangora.

24



Suitzako enpresa batek jarriko dau Erakustazokako Mini Rampa. Asier Arroita

Martitegi espetxean sartzeko agindu dau Le Vert epaileak

Durango• Jurdan Martitegi, Alex Uriarte eta Gorka Azpitarte kartzelaratzeko agindua emon dau Frantziako LeVert epaileak. Jurdan Martitegi durangarra Nanterreko espetxera bidali dabe.

6

Campurriano, bere
eskulanen inguruan
berba eginez

KULTURA• Traña-Matienako bere lantokian atea zabalik daukala topatu dogu herrian “Campurriano” ezizenez ezagutzen daben Angel Alvarrez. Auzoko jaietan, San Prudentzioetan, apirilaren 29tik maiatzaren 8a arte Errota kultur etxean bisitagai izango dira urteotan egindako eskulturak. Erakusketa osatuko daben bederatzi lanetariko bat eta bere lantokian dituen material eta bitxikeriak erakutsi deuskuz. **13**

13



• **Otxandio**
Hurtzaindegian izena emoteko
aukera maiatzaren 4tik

8

• **Zaldibar**
Castet Eguna antolatuko dabe domekan Santamañezarren

2

EXCAVACIONES **JON**

MOTA GUZTITUTAKO INDIKUKETAK
HONDAKINDEGIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

Registrazioa: 1014 • CIFEREA: A-10294 • MALLAKIA
Tlf: 9442 17 06 54 • Mofa: 800 44 40 00

Atilikua harategia
Haragiaren boutiquea
1976tik zure zerbitzura

Trañatxoste, 5 • Matiena-Abadiño
Tel.: 94 681 40 09

HERRIRIK HERRI >

BERRIZ



Sarrera nagusia ez eze, larrialdietarako ate bat zabalduko dabe atzeko aldean.

Udan eraberritu egingo dabe Lehen Hezkuntzari jagokon eraikina

Besteak beste, leiho guztiak aldatuko ditue

L gazko soberakinen zati bat, 1.710.753 euro, aurrekontueta-ko hainbat proiektu osatzeko zein barri batzuk sortzeko erabiliko dau Udalak. Azken udalbatzarrean onartu ziren kreditu gehigarriak. 473.700 euroko atal bat (493.000 euro, lehendik zegoenagaz batera) Learreta-Markinako Lehen Hezkuntzako eraikinean obrak egiteko erabiliko dabe.

Hainbat hobekuntza egingo deusie eraikinari. Alde batetik, leiho guztiak aldatuko ditue. Holan, akustikoki eta termikoki isolatuta geratuko da; hau da, kanpoko zarata ez dabe hainbeste entzungo eta berotasuna luzarogo mantenduko da. Bestetik, orain eraikinak sarrera bakarra dauka, eta, alor horretako araudia bete asmoz, larrialdietarako bigarren atea zabalduko dabe atzeko aldean, jolasgunea dagoen tokian.

Argindar azpiegitura osoa be barritzatuko dabe. Orain arte zegoena kendu eta sistema fotosentikorra darabilena ipiniko dabe. Sistema horrek argindar kontsumoa erregulatzen lagunduko dau, energia aurrezte ahalbidetuz. Kanpotik sartzen den argitasuna

neurtu eta horren arabera automatikoki indartu edo txikituko dau argi artifizialaren potentzia.

Lanak maiatzaren amaiera aldera esleitu eta ekainaren hondarrean hasiko ditue. Amaitzeko bi hilabeteko epea ezarri dabe; beraz, ikasturte barrirako prest egongo da eraikina.

Jolasgunea dagoen atzeko aldean larrialdietarako irteera bat egingo deusie

Orain dagoen argindar azpiegitura aldatu eta sistema fotosentikorra darabilena ipintzeko asmoa daukie

Gauetz Iturriza itxiko dabe

Gaurko 22:00etatik biharko 7:00ak arte Iturriza kalea moztuko dabe, trenbide pasagunea barritzeko. Zazpi urte dira orain hurrengo konpondu ebena, eta errailen ondoko asfaltoa apurtuta dago ibilgai-luen joan-etorria zailduz. ■ I.E.

MALLABIA

Berano Txikiko ospakizunekin auzoetako jaiak martxan dira

Ohiturari eutsiz, Mañukorta eta Beñat Ugartetxea bertsotan arituko dira

Berano Txiki auzoan jaiak ospatuko ditue domekan. Urtero legez, fin asko ibili dira jaiak prestatzen, eta ziur aurten be giro ezin hobea gozatu ahal izango dabela bertaraten direnek.

Goizean meza izango dabe, eta ondoren oilar-harrapatzea eta txapel-jaurtiketa. Ohitura den legez, Gregorio Larrañaga "Mañukorta" eta Beñat Ugartetxea bertsolariak arituko dira meza ondoren. Salda eta txorizoa banatuko ditue bertaratzen direnen artean. 17:00etan umeen jolasak hasiko dira, zaku-karrera, lapiko-apurtze eta beste hainbat jolas izango da ume guztien gozamenerako.

Arratsaldeko 17:00etan, umeen jolasak antolatuko ditue. Zaku-karrera eta lapiko-apurtzea ez dira faltako

Iluntzeko herri-kiroletan, Zelai eta Bihurrik erakustaldia eskainiko dabe. Jon eta Ioritz aizkoran arituko dira

Nagusiek musean eta briska txapelketan parte hartzeko aukera izango dabe. Iluntzean, barriz, herri-kirolak izango dira: Zelai eta Bihurri aizkoran, trontzan eta txingeroaten; Jon eta Ioritz mutikoak aizkoran. Musika be egun guztian egongo da.

Hitzaldiak

Jubilatu elkarteak Ongizate Sailagaz elkarlanean hitzaldi sorta antolatu dau datozen asteetarako. Apirilaren 29an, Elena Iraolagoitia psikologoak adimen emozionalaren inguruan jardungo dau Jubilatutxan, 16:00etatik 17:00ak bitartean. ■ P.M.

IZURTZA

Interneten erabileran trebatu gura dabenentzat

Maiatz eta ekainean, KZgunean dira Interneten trebatu gura dabenei zuzenduriko ikastaroak

Interneten erabileran trebatu gura daben guztiei zuzenduta antolatu dituen ikastaroak dira maiatz eta ekainean KZgunean izango direnak. Landa garapenerako Urkiola elkartearen informazio eta komunikazio teknologien dinamizaziorako sailak prestatutako gaiak landuko ditue ahotan darabilguzen ikastaroetan ize-na emoten dabenek.

Landa garapenerako Urkiola elkarteak dinamizaturiko ikastaroa izango da KZgunean

Datozen hile bietan Interneten eskaintzen dituen askotariko aukeren inguruko informazioa jaso gura dabenek honako telefono zenbakian dabe izena emoteko aukera: 688 613 537.

Askotariko gestinoak sarearen bitartez irakasteko pentsatutako atala dau batetik ikastaroak, eguneroko hainbat tramite egiten ikasi gura dabenentzat.

Bestalde, sareagaz lehenengo hartu-emonen daukienendako prestatutako gaiak lantzeko aukera be eskainiko dau landa garapenerako Urkiola elkarteak, oinarritzko ikastaro batez. ■ I.E.



IURRETA



“Ilusino handiz” martxan jarritako programa pilotua da, alkatearen berbetan. Iban Gorriti

Taxia eskura, herrigunea eta auzoak lotzeko helburuagaz

Taxi Auzunea zerbitzua jarriko dau martxan Udalak apirilaren 27an; auzoetatik herrigunera eta alderantziz, 1,5 euro ordainduko da taxa

Herrigunetik auzoetara hurreratzeko eta alderantziz, zerbitzu barria izango dabe astelehenetik aurrera iurretarek: Taxi Auzunea. Herriko taxi biekin adostutako akordioa da, eta bidaiko 1,50 ordainduko dau erabiltzaileak. Udalak egingo deutso aurregainerakoari; gastuaren %80-90i. Aurrekontuan 18.000 euroko diru-atala lotu da horretarako. “Ilusino handiz” abiatutako proiektu pilotuak harrera ona izatea itxaroten dabe, Iñaki Totorikaguena alkatearen berbetan, eta denporan aurrera mantentzea.

Ibilgailu pribatuaren “arrazoizko” erabilera sustatuko daue-la eta herritar guztiei Udaleko zein bestelako zerbitzueta heltzea bermatuko deutseela uste dabe. “Herriguneko bizilagunek auzoetara joateko be erraztasun gehiago izango ditue”, dino alkateak. Zerbitzua, astelehenetik barikura, 07:30etik 20:00etara eskainiko da;

zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara. Honako telefonora deitu behar da: 688 618 690. Zerbitzua bermatzeko beste taxi-gidari batzuekin be egon dira Iurretakoek, eurak zerbitzuren baten dagozela joaterik ez daukien kasuetarako.

Herri sakabanatua
“Oso sakabanatuta dago herria. Herrigunean batzen da biztanleriaren hiru laurden, baina dozena bat nukleo txiki be badira, eta horrek herrigunean batzen diren zerbitzueta hurreratzeko beharra ikusi dogu”, dino alkateak: “Gitxi balio dau eta erabili leiteke; baita partekatu be”.

Artatza da urrunen dagoen auzoa, zazpi bat kilometrorra; ohiko taxiak 13 bat euro balioko leukez, Jose Migel Cerezo gidariaren berbetan, baina tarifak bateratu eta batez bestekoa egin dabe. Cerezok uste dau, batez be, medikua-renera joateko erabiliko dela. ■ A.B.

Astelehenetik barikura
07:30etik 20:00etara emongo dabe zerbitzua; zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara

Udalak gastuaren %80-90i egingo deutso aurre, eta horretarako 18.000 euroko atala lotu dabe aurrekontuan

Denporan aurrera, zerbitzua mantentzea gura leukie udal arduradunek

San Marko jaiak hasiko ditue, gaur, Oromiño auzoan

Donien Atxa igota hasiko ditue, gaur, Oromiño San Marko jaiak. Horretarako 19:00etan elkartuko dira auzokoak, ondoren, afaria be izango dabe San Marko sagardotegian. Xabier Amuriza eta Gregorio Larrañaga “Mañukorta” bertsolariek eta Txiri-Txiri taldeak berotuko dabe jai giroa. Bihar izango dabe, baina, egun handia, San Marko eguna.

Bihar San Marko
Kalejiragaz hasiko dabe eguna bihar, eta 12:00etan meza nagusia hasiko da. Eguerdian bazkaltzeko batuko dira auzokoak. Arratsalderako, barriz, briska txapelketa eratu dabe, eta umeendako dantza eta sorpresak. Tortilla txapelketa izango da iluntzean, eta gau giroa Luhartzek alaituko dau. Atsedendian txarri harrapaketa izango da, eta goizaldean txokolatea banatuko dabe.

Mikel Deuna dantza taldeak eskainiko dau saioa domekan, 12:00etan meza amaitzean, eta eguerdian txarri errea dastatu ahal izango da. Jaiak agurtu aurretik asto desafioa eta errifaren zozketa egingo dira. ■ A.B.

Umeendako ekintzak, tortilla txapelketa eta Luhartz taldeagaz erromeria izango dira San Marko egunean

ABADIÑO

Barrakak orain arteko lekuan dagozen azken urtea izango da

Ohiko kokalekua izango dabe aurtengo Sanprudentzio jaietan behaurrendako barrakek. Eguazten honetan izan daben batzarreran jakinarazo deutsee ardura-dunei, Navarro alkateak azaldu deuskunez, “orain arte izan daben espazioaren erdia” izango dabela barrakak ipintzeko. Behin-behineko neurria dela eta datorren urterako barrakendako beste “leku aproposagoa” bilatuko deutseela dino alkateak.

Barraka kopuru bera izango da, baina espazio murritzagoa izango dabe

Datorren urterako beste kokaleku bat topatu gura dabela dino alkateak

Alkatearen berbetan, autoa aparkatzeko herrian dagozen zailtasunekin ezin leiteke izan barrakek 300 autorendako lekua kentzea. Horregaitik, aurtengo jaietarako soluzino bila jardun dabela eta barraken arduradunekin batzartu direla dino Navarro. Salbuespen legez, aurtengo leku berean kokatzeko baimena emon ei deutsee. Espazio murritzagoa izango dabe, baina urteroko barraka kopuru bera izango da haurrendako. ■ I.E.

GARAI

Irailean hasitako plazako lanak amaitu barri ditue

Abadiñorantz espaloia eginda osatuko da lana

Herriko plazako lanak amaituta dagoz, irailean hasi eta hilabeteetan garatu eta gero. Guztira, 315.704 euroko inbertsinoa egin dau Udalak, horreetatik 171.605 Aldundiak ipinita.

Oinezkoentzako lekua irabaztea zen proiektu honen helburua, aparkaleku batzuek kenduz eta begiratoki barria eraikiz. Azken asteetan nahiko aurreraturik joan dira lanak, eta azken ukituak egitea falta zen bakarrik. Bestalde, aipagarriena zera da: herrigunea zeharkatzen dauen errepidea asfaltatu dabela dagoeneko. Joan zen astetik itxita egon da bidea, kotxe zirkulazinoan eraginez.

Herriko urbanizazino lan osoa betetzeko oso gitxi falta da: Abadiñorako noranzkoan dagoen espaloia bukatzean osatuko da egitasmoa. Datozen egunetan amaitzea itxaroten dabe. ■ M.O.

Herrigunea zeharkatzen dauen errepidea asfaltatu dabe dagoeneko

Oinezkoentzako lekua irabaztea zen proiektu honen helburu nagusia

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teilak, zeramika, hormigoi
orakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

CATALANA OCCIDENTE

Betikoak

flexografia

ofizinarako ziguiluak
fotolitoak

Bixente Ikaparaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

ZALDIBAR

Castet Eguna iragarriko dau gaur Fermin Balentziaren kantaldiak

1937an Errepublika defendatzearen euren bizia emon eben milizianoak omenduko ditue domekan

Orain 72 urte Santamañezar mendian izan zen gerrako frentean erahildako gudari eta milizianoei omenaldia egiteko antolatu dabe domekako XVII. Castet Eguna. Zaldibarko Castet

Eskualdean memoria historikoan lanean dabilzen elkarteek antolatutako eguna

Elkarteak, Berriz 1936 Gogoratzen, Durango 1936 Gogoratzen, Otxadioko Andikona eta Ahaztuak elkarteek, bigarren urtez, elkarrengaz antolatu dabe oroimenerako eguna domeka honetarako.

Aurten bost elkarteren lana-ri esker antolatutako Castet Egunak hamazazpigarren aldia dau. Antolatzaileen berbetan, "orain 17 urteko arrazoi berberagaz aurtent be": 1936ko altxamendu militarri erantzuten Santamañezar tontorrean zazpi hilabetez eustea lortu eben guztiak eta Santamañezarreko erresistentzia jauzi zenean hil zitueen 40tik gora miliziano eta gudariak omentzea; Errepublika defendatzearen hil zitueen Durangaldeko eta Euskal Herriko lagun guztiak gogoan hartzea.

Fermin Balentziagaz

Castet Egunaren harira gonbidatuta, apirilaren 24ko 22:00etarako, Fermin Balentzia kantautore nafarraren emanaldia antolatu dabe Gaztetxean. Memoria historikoa-gaz lotutako gaiak kantatzen ditu Balentziak; 36 eta 37ko errepresinoari buruzko letrak ditueen kantak eskaintzera gonbidatu dabe.

Domekan, apirilaren 26an, izango da hamazazpi urtean hutsik egin ez dauen Santamañezar tontorreko ekitaldia. Santamañezarreko frentean bizitakoa kontatzen daben testigantzen irakurketak egingo ditue 11:00etan tontorrean, eta txalaparta eta trikiti doinuak be izango dira ekitaldian. Udaletxeko plazan 10:00etan batzeko deitu ditue antolatzaileek herritar-ak, tontorrerantz abiatzeko. ■ I.E.

Esleitu ditue biribilgunea eta industriagunea lotzeko lanak

Tokiko inbertsinoetarako Estatu Fondoaren diru-laguntzagaz finantzatu ditue Olazar biribilgunea industriaguneagaz lotzeko hasiko ditueen lanak. Azken helburu moduan Euskalerrria kaleak jasaten dauen trafikoko kopurua murriztea daben lanen gastua Estatuaren diru-laguntzagaz ordainduko dabe.

Olazar biribilgunea industriguneagaz lotzeko lanak ekainean hasiko ditueela dino alkateak

512.000 euro inguruko aurrekontua daukien lanak dira diru-laguntzagaz finantzatu ditueenak

Azken udalbatzarrean aho batez esleitu eutseezen lanak Urbelan enpresari, lehiaketa publikora aurkeztutako hiru enpresaren artean berau hautatuta. Guztira, 512.000 euro inguruko aurrekontua daukien lanok egiteko hiru hilabete epea izango dau enpresak.

Tokiko inbertsinoetarako diru-laguntza jaso ahal izateko baldintzak jasotzen ebanek, langabetuek burutuko ditue biribilguneako lanak. Ekainean haste-koak dira lanean, Mendiola-gerai alkatearen esanetan. ■ I.E.



Eguraldia lagun izan eben igazko Castet Egun jentetsuan. Judit Fernandez

ELORRIO

Hainbat elkarteren kokalekua aldatuko dabe Aldatzekuan

Esaterako, Alargunen Elkartea bigarren pisutik lehenengora aldatuko dabe

Aldatzekua jauregia irisgarritasun eskakizunetara egokitzen dabilz urtariletik. Besteak beste, solairu guztiak lotuko dituen igogailua ipiniko dabe. Ekainaren 30erako amaituko ditue lanak. Lan horreek solairuetan banatzen diren elkar-te batzuen egokitzapena be eka-riko dabe.

Esaterako, Txantxibiri irratia lehenengotik bigarren solairura tokialdatuko dabe. Gela barrian orain daukana baino espazio handiagoa izango dau. Alargunen Elkartea, aldiz, bigarrenetik lehen-go solairura joango da. Hantxe

Besteak beste, Txantxibiri irratia lehenengo solairutik bigarrenera tokialdatuko dabe

Aldameneko sarrera bat itxi eta libre geratzen den espazio horretan podologia zerbitzua eskainiko dabe

dago La Esperanza elkartea be, eta harek orain hartzen dauen espazioa handitu egingo dabe. Lehenengo solairuan erabilera anitzeko gela bat be egokituko dabe.

Podologia zerbitzua


Behoko solairuan aldamenetik dagoen sarrera bat itxi egingo dabe. Ez dabe hormarik egingo, baina atea itxita egongo da. Ondorioz, atarian, libre geratutako espazioan podologia zerbitzua egokituko dabe. Sotoan ez dago aldaketarik. Orain arte legez, taberna eta ilea-paindegia egongo dira. ■ J.D.

Erreka kaleko jailetako Video Partyak gaztetxoenen arreta erakarri eban

Video Partyak arratsalde-pasa entretenigarria eskaini eutsen Eloorrioko gaztetxoei. Hain sonatu egin den 'Guitar hero' jokoan jolas-terko aukera eskaini eben, besteak beste. Musika kontzertuak eta AHTA gelditzea eskatzeko manifestazioa be jentetsuak izan ziren.



K.A



**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79



Inoiz ikusi gabeko deskontuak

Berriztatu zure sukaldea eta **3 fokoko**
indukzio plaka bat oparituko dizugu



%17ko
deskontua

%10eko deskontua • 20 hilabetetan ordainduta

larunbatetan zabalik 10:30etik 13:30era • 20 hilabetetan ordaindu interesik gabe

*Malatzak 31arte, sukalde osoa erosten



Viedsa cocinas  

FABRIKA - Durango - Elorrio errep. ABADIÑO - 902 12 10 24 - info@viedsa.com www.viedsa.com

DURANGO

Jurdan Martitegi Nanterreko kartzelara bidali dau epaileak

AAMk adierazi dauenez poliziek "bortizkeria handia" erabili eben atxilotetak egiterako orduan

Jurdan Martitegi durangarra, Alex Uriarte eta Gorka Azpitarte ustezko etakideak espetxera sartzeko agindu eban Laurence Le Vert Frantziako epaileak eguaztenean. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakitera emon dauenez, Martitegi Nanterreko kartzelan sartu dabe. AAMk salatu dauenez, Martitegi, Uriarte eta Azpitarteren atxilotetan "bortizkeria handia" erabili eben poliziek.

Ustezko hiru etakide horreek Ipar Katalunian atzeman zitueen zapatuan; Igor Garcia Otxandion atzeman eben; Gasteizen Asier Ortiz de Ginea, Olaritz Arakama

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak salatu dauenez, poliziek "bortizkeriaz" jokatu eben Martitegiren atxilotetan

"Luze baino lehen gatazka politikoari irtenbide politikoak emotea ezinbestekoa da"

(kalean dago jadanik) eta Jonathan Guerra; Sergio Bravo Bilbon eta Gorka Iriarte Errenterian.

Inkomunikazinoa salatuz
Durangoko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak gogor salatu eban "ezelako berme barik" espainiar eta frantziar polizien kartzeletan egon diren atxilotuen inkomunikazino egoera. Espainiar gobernua "errepresinoaren aldeko apustu itsuan" darraiela salatu eben martitzeneko agerraldian.

Horrez gainera, komunikabide gehien jarrera "kezkagarria" dela adierazi eben, atxilotuen erru-

gabetasun eskubidea "urratzen" dabilzelako, Barne Ministerioaren "triumfalismoaren lepotik".

Era berean, azpimarratu ebeenez, "frantziar eta espainiar poliziek eskuz esku burutu daben operazio honek agerian itzi dau barriro be estatuen mozkorraldi errepresiboaren neurria".

Etorkizunera begira, "luze baino lehenago" gatazka politikoaren bidetik konponbidean "urratsak emoteko" deia egin eban Amnistiaren Aldeko Mugimenduak, Euskal Herriko "gatazka politikoari irtenbide politikoak emotea ezinbestekoa da-eta". ■ J.D.

Herritarrak Internet bidezko tramitazioan prestatzeko ituna

Herritarrak Internet bidezko tramitazioan prestatzeko akordioa sinatu dau Udalak Jaurlaritzagaz. Horren baitan Durangoko KZguneak administrazio elektronikoari buruzko hastapen ikastaroa hasiko dau, udal arduradunek azaldu dabenez.

Eusko Jaurlaritzagaz, Foru Aldundiagaz, Administrazio Zentralagaz eta Udalagaz elkar eragiten erakutsiko dabe: besteak beste, errolda paperakeskatzen, enplegu eskaintzetara sartzen, aldizkari ofizialak aztertzen, foru ogasunekin izapidetzakegi-

Jaurlaritzagaz, Aldundiagaz, Administrazio Zentralagaz eta Udalagaz elkar eragiten erakutsi gura jake herritarrei

KZguneak administrazio elektronikoari buruzko doako hastapen ikastaroa eratu dau

ten eta zirkulazinoaren inguruko informazioa lortzen ikasiko da. Udaleko webguneagaz elkarri eragiten edo Osakidetza hitzordua eskatzen be bai. Izena emoteko epea zabaldu barri dabe (94 620 38 63).

Zerbitzu elektronikoak
Edozein administratzen eskainitako zerbitzu elektronikoak ezagutarazotea da helburua. Ikastaroaren bitartez, "herritarrak on-lineko administrazio barrian trebatu eta administratzenko tramiteetan itxaron-denporak murriztu, kostuak txikitu eta Interneten inguruko konfidantza zein segurtasuna areagotu" gura ditue. KZgunea 2002an zabaldu ebenetik 4.414 lagunek emon dabe izena; 1.724k Interneti buruzko ikastaroan. ■ A.B.

Administratzen eskainitako zerbitzu elektronikoak ezagutarazotea da helburua

"Aurrera egiteko" akordioak lotzeko lan egin gura dau Gobernu Taldeak

Durangok "aurrera egin" daian, "gelditu barik" lanean jarraituko dabela jakin eragin dau Udalak, "egoera ekonomiko orokorraz eta Durangoko Udalaren egoera politikoaz jabetuta", eta zenbait alderdik eguneroko jardunari "trabak" jarri arren.

"Lehentasunezko" hainbat egitasmo aurkeztuko ditu EAJk datozen hileotan

Datozen hileotan, "lehentasunezko" hainbat egitasmo aurkeztuko ditue: enplegu politikan lankidetzera erakunde eta instituzinoekin, etxebizitzara publikoa dinamizatzen ahalegintzeko ekimenak, auzo zaharrenean hobekuntzak eta jasangarritasunagaz lotutako jarduerak.

Horretarako akordioak lotzen saiatuko da Gobernu Taldea, eta gainerako alderdiei "erantzukizuna" eskatu deutse. Aurten be aurrekontua ez dela eta onartu ekin gura deusie horri. ■ A.B.



Kepa Aginako

Milaka lagun batu ditu Etxerat-ek dispartinoaren aurka

Sakabanaketaren "porrot politikoa" agerian geratu da azken 20 urteotan, Etxerat-ek Landako Gunean egindako ekitaldian adierazo eban. Apirilaren 14tik 19ra Euskal Herria zeharkatu dauen Dispartinoaren Aurkako Bira Durangon amaitu zen, joan zen domekan, hainbat herritako milaka lagun batuz. Euskal presoaren eskubideen urraketagaz eta sakabanaketagaz amaitzeko herritarren konpromisoa eskatu eben, sakabanaketa indarrean jarri zela 20 urte bete direla salatuzko antolatutako ekitaldian.

UNDARRI BIKE

Bizikleta salmenta eta konponketa.

Bidebarrieta, 5 - bajo
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

94 681 78 08
www.undarribike.com

goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

CENTRAL FORESTAL

Baserritarren eta
Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa
48200 IURRETA

Tf.: 946 205 187
Faxa: 946 205 194

Caritas Tabirak 600 familiari lagundu deutso 2008an

Caritas Tabirak eskaintako zerbitzuen bitartez, 600 familiari eskaini deutesie laguntasuna 2008an. Diru-laguntza bitartez, 45.844 euro banatu ditue, urteko balantzea egiterakoan azaldu dabenez. Eskualdeko elizetako kolekten (24.768 euro), donazinoen (3.000 euro) eta administrazioen diru-laguntzen bitartez (7.000 euro) batutakoa erabili dabe horri aurre egiteko; gainerakoari Caritas Diozesiarraren laguntzagaz egiten deutesie aurre.

Egoera larrian diren familiei begirako harrera-programan 386 laguni eta 194 familiari eskaini deutsee laguntza

Egoera larrian diren familiei informazioa, orientazioa eta laguntza ekonomikoa bideratzeko harrera programan—12 bolondres dabilz— 386 laguni eta 194 familiari emon jake laguntza, jakin eragin dabenez, eta arropabatzean—batetik “duintzeko” eta bestetik “donazioa bertaratutako autonomia, normalizazioa eta duintasuna sustatzeko” erreminta izan gura dauen Ekorroparen bitartez— 3.189 kilo arropa batu ditue; herrietan banaturiko ontzietan, 44.512 kilo. Durangon, 103 laguni eskaini jake zerbitzua, eta 645 jantzi emon dira. Horretan 14 lagunek dihardue bolondres. Sentsibilizazioan, bostek.

Enplegu bila zebilzen 300 laguni emon deutesie informazioa. Lan bila eta eskaintzen dabenen arteko bitartekaritza lanean, barriz, 45 postu bete dira. ■ A.B.

Diru-laguntza bitartez, 45.844 euro banatu zituen joan zen urtean Caritas Tabirak

Ekorropa egitasmoaren baitan 3.189 kilo arropa batu dabe; herrietan banatutako ontzietan 44.512 kilo

MAÑARIA

Bizkaian biztanle bakotxeko zor handiena daukan Udala

Udalen zorpetzeari buruzko datuak zabaldu ditu Ekonomia Ministeritzak



Estatu osoan 306 Udal baino ez dagoz biztanle bakotxeko 1.000 eurotik gorako zorragaz. J.F.

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministeritzak lehenengoz egin ditu publiko igazko urte amaierara arteko Udalen zorpetzeari buruzko datuak.

Durangaldeko datuei erreparatuta, Mañariko Udalari buruzkoak deigarriak dira: 474 biztanleko herrian 1.171.000 euroko zorra zeukan, igazko abenduaren 31ko datuen arabera.

Biztanleko 2.000 euro zor
Herriko biztanle bakotxeko 2.000 eurotik gorako zorra zeukan data horretan, beraz, Mañariko Udalak. Estatu osoan 306 udal baino ez dagoz biztanle bakotxeko 1.000 eurotik gorako zorpetzeagaz, Mañarikoa bat. Bizkaiko zorpetue-na da Mañariko Udala.

Argitara emondako datuen gaineko Gobernu Taldearen interpretazioa eskatuta, igaz obra

garrantzitsuak egin zirela eta Dantzari eraikina erosteko milioi bat euroko kreditua eskatu ebala Udalak azaldu dau Javier Arteaga alkate jeltzaleak. Aurtan, “gerrikoa estutuko” dau Udalak, eta inbertsino handirik ez dabe aurreikusten, nahiz eta “diru-laguntzak eskatzen jarraituko” dauen Udalak, alkateak dinonez.

Eskualdeko gainerako Udal-lerriei jagokenez; 1.000 euro inguruko zorra zeukan biztanleko Mallabiko Udalak, 300 euro inguruko Berriz eta Atxondokoek, 400 euro inguruko Elorriokoak eta 500 eurokoa Abadiñoak.

Estatuan 3.000 udalerrik ez zeukien finantziarioz titulatu edo bestelako ordaintzekorik igazko urtearen amaieran; horreen artean Garai, Izurtza, Durango, Otxandio eta Zaldibar agertzen dira txostenean. ■ I.E.

Biztanleko 2.000 euro baino gehiagoko zorra zeukan abenduan Mañariko Udalak

Arteaga alkateak dino “aurten gerrikoa estutu beharko” dabela eta inbertsino handirik ez dabela aurreikusten

Estatuan 300 inguru dira biztanle bakotxeko 1.000 euro baino gehiagoko zorpetzea daukien Udalak

ATXONDO

Axpeko Etxebarri munduko 50 jatetxe onenen arteak bigarren

Nazinoarteko kazetari, kritikari eta idazle talde batek osatutako epaimahaiak 2002tik urtero egiten dauen Munduko 50 Jatetxe Onenen Zerrendan 39. postua emon deutesie Bittor Arginzoniz sukaldariaren Axpeko Etxebarria erretegiari. Bigarren urtez ageri da zerrendan, eta igaz baino gorago gainera aurtan: 44. postuan izan zen igaz.

Epaimahaiak adierazo dauenez, erretegiaren egiten dauen sukaldaritza “arte” bilakatu dau Bittor Arginzoniz sukaldariak Etxebarri jatetxean.

Munduko 50 jatetxe onenen zerrendan 39. lekua dauka Victor Arginzonizen Axpeko Etxebarri erretegiak

Parrillako sukaldaritza “arte” bilakatu dauela Arginzonizek dino sariketako epaimahaiak

“Barbakoa egiten dakiela uste dauena eta Etxebarri erretegiari bisita egiten dauena hutsaren pare itziko dau”, dino Munduko 50 jatetxe onenen zerrenda osatu dauen epaimahaiak.

Bertako osagaiak baliatuz, besteak beste, ostrak txingarretan, angula nahaskiak edo kabiarrak sukaldatzen maisu dela Bittor Arginzoniz dinoe 2009ko nazinoarteko epaian.

Axpeko San Juan plazako XVIII. mendeko eraikinean, bertako produktuen zaporea indartzea eta daukien probetxu guztia ateratzea dau helburu, orain 19 urte jatetxea zabaldu ebantetik, Arginzonizek. Jatetxeko plater berezien artean nabarmen-tzekotan erretako txuleta edo arraina aitatzen ditue. ■ I.E.

Axpeko San Juan plazako erretegiaren bertako produktuei probetxua ateratzea dabe helburu

JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel.-Faxa: 94 623 18 03



HONDA
STIHL
SAME
BCS
VIKING

OTXANDIO

Haurtzaindegian izena emoteko epea maiatzean zabalduko dabe

Izen-emotea Udaletxean egin behar da maiatzaren 4tik 15era bitartean



Beharginek eraikin barruko konponketetan dihardue oraindino. Kepa Aginako

Herri-eskolan haurtzaindegia eta gimnasioa hartuko dituen eraikin barruko lanak “epeen barruan” burutzen dihardueela azaldu dabe udal ordezkariak. Aurreikuspenak betetzen badira, lanak uztaileko amaiteza itxaroten dabela jakitera emon dau Santi Uribe zinegotziak. Lanak amaitzerakoan tramitazino guztia egin behar denez, urrirako haurtzaindegi zerbitzua martxan ipintzea itxaroten dabe.

Haurtzaindegian izena emoteko epea maiatzaren 4tik 15era

0-2 urte bitarteko umeendako haurtzaindegia Haurreskola Partzuergoak kudeatuko dau

Proiektua milioi bat euro ingurukoa da eta Hezkuntza Sailaren laguntza jaso dabe

bitartean zabalduko dabe Udaletxean. Eraikin barria 600 metro koadro inguruko solairu bakarrekoa da. Ikastetxerako gimnasioak eta aldagelek 280 metro koadro hartuko ditue, eta haurtzaindegiak, barriz, 320 metro koadro.

Denetara, milioi bat euro inguruko inbertsinoa egin dabe. Hezkuntza Sailatik 495.000 euroko laguntza jaso dabe. Azaroan hasitako lanen berezitasun nagusia Haurreskolaren energia iturria geotermia sisteman oinarritutakoa izatea da. ■ J.G.

Udaberri Jaiko kalejira koloretsua herria zeharkatuz

Otxandioko Gaztetxe eta Gazte Asanbladak, tabernariekin batera, joan zen zapatuan antolatutako Udaberri Jaian makina bat lagunek parte hartu eben.

Goizean zehar Euskal Herriko gaztetxe eta gazte asanbladen gaineko erakusketa antolatu eben. Bazkariaren ondoren, Zaparrada batukadaren laguntzagaz, kalejira koloretsuak herriko kaleak zeharkatu zituen.

Gauean, Póg Mo Thón talde mungiarrak kontzertua emon eban. Akerbeltz taldearen erromeriak Udaberri Jaiari amaiera emon eutsan.



K. Aginako

DURANGO

Gaztetxo sahararrak etxean hartzeko dei egin dau Herriak



Oporrak bake giroan egitasmoaren baitan uda sasoian Durangaldera etorriko diren neska-mutiko sahararrak etxean hartzeko deia egin dau Herria auzo elkarteak. Zazpigarrenez etorriko dira Tindufeko errefuxiatuen kanpamenduetan (Argelia) bizi diren 7 eta 12 urte bitarteko gaztetxook, eta eskualdean egingo daben egonaldian —uztailaren lehenengo astetik irailaren lehenengora— bizi dituen baldintza gogorretatik deskantsua hartzeko aukera izango dabe. Herritarren Arretarako Zerbitzura eta Herria auzo elkarteko tabernara jo leiteke eskaria egitera. Informazino gehiagorako: 655 711 100.

Pazko jaia ospatuko dabe etzi

Pazko jaia ospatuko dau Tabira eskualdeak, domekan, San Jose Maristak ikastetxean. Tabira-txiki elkarteak hirugarrenez antolatutako jaia 17:30ean hasiko da, eta Durangaldera zabaldu dabe gonbita. Euro baten truke makina bat jardueratan parte hartzeko aukera eskainiko dabe; era berean, Liburuaren Nazinoarte-ko Eguna izan dela gogoan hartuz, liburuak trukatzeko aukera egongo da. Batutako dirua Andra Mariko gazteek kudeatuko dabe, udan Tangerreko umezurtegi baten egingo daben auzo-landegian erabiltzeko. Azkenengoz 350 liburu trukatu ziren. Senegaleko dantza eta kantu ikuskizuna be aurreikusi dabe.

BERRIZ

X. Kaleko Margo Lehiaketa

X. Kaleko Pintura Lehiaketa antolatu dabe, zapatuan, Berrizen. Parte-hartzaileek herriko irudietan oinarritutako margoak egin beharko ditue, beti be aire librean, eta erabili beharreko teknika zein formatua artistaren esku geratuko da. Zapatuan bertan zigilatu behar dira euskarriak, Kultur Etxean 09:00ak eta 10:00ak bitartean. Leku berean itziko dira lanak, behin amaituta, 14:00ak eta 14:30 bitartean, fitxa osatuagaz batera. Irabazleak 550 euro lortuko ditu, 2.ak 450 eta 3.ak 350 euro. Herriko lehenengo sailkatuak —sarituen artean ez badago— 250 euro jasoko ditu.

DURANGALDEA


18/98an auziperatutako seiren absoluzinoa eskatu dau fiskalak

18/98 auzian Audientzia Nazionalaren sententziaren kontrako helegiteak aztertzeko ikustaldi publikoa amaitu da asteon. Horren barruan, *Joxemi Zumalabe* atalean zigortutako bederatzilagunetatik seiren absoluzinoa eskatu dau fiskalak; horreen artean, Durangoko Mario Zubiagarena. Beste 12 lagun zigor-rrak hiru urte eta 18renak urte bi jaistea be eskatu dau, eta, beste birenak erretiratzea. 2007ko abenduan atxilotutako 46ren artean zen Zubiaga, eta bermea ordainduta aske itzi eben. KAS, Ekin eta Xakin jarduteagatik eta Joxemi Zumalabe Fundazino-ko edo ‘Egin’ ateratzen eban Orain enpresako kide izateagatik atxilotu zitueen; tartean, Inma Berriozabal elorriarra be bai.

BERBAZ >

“Huntingtona ezagutzera emon eta gaixotasuna sozializatzea gura dogu”

Huntington Norte elkarteak gatx horren gaineko berbaldiak antolatzen dihardu Durangon



Alfonso Akesolo •

■ 56 urte

■ Huntington Norte elkartearen presidentea

Huntingtona lako gaixotasun arraroek jotako pertsonen zama bikotxa jasan behar izaten dabe: batetik, gaixotasunak berak eragiten dauen zama eta, bestetik, gizartearen ezjakintasuna. Gatx hau eramangarriago egin eta ezagutzera emoteko, Euskal Herriko 50 familia Huntington Norte elkartearen batu dira. Alfonso Akesolo durangarra elkartearen presidentea da. Gaixotasun horri aurre egiteko AEBetan egiten dituen ikerketak gertutik jarraitzen ditueela azaldu deusku.

Noiz sortu zendueen elkarte?
1997an sortu genduen. Hainbat familiak gatx honegaz lotutako kasuak daroazen Ramos medikuagaz hartu-emona geunkan, eta haren bidez elkarteaz erabaki genduen. Iruñeko Virgen del Camino ospitalean lan egiten dauen sendagile horrek asko lagundu deusku. Urtean birritan AEBetara joaten da gaixotasunaren inguruan ikertzera.

Zer helburugaz sortu zendueen elkarte?
Arazo bardinak ditueen familien arteko hartu-emona bultzatzeaz gainera, gaixotasuna ezagutzera emotea gura dogu.

Medikuek gaixotasun hau sakonago lantzea be eskatzen dozue.
Diagnosi protokoloak bete daitezen eskatzen dogu. Pertsona batek gaixotasun hau iza-

tea posible bada, osagileak hasikeratik ez daiala aukera hori baztertu. Behin gatxa Huntingtona dela baieztatuz gero, azalpen egoki bat emon daiala. Gaixotasun hau detektatzeko odoleko analisi bat egitea nahikoa da.

Gaixotasun hau herentziazkoa da?
Herentziazkoa da kasuen %50ean. Beraz, aukera guztiak izan zeinkez, eta aldi berean bat be ez. Eritasun neurologikoa, degeneratiboa, heredagarria, autosomatikoa eta dominantea da.

Zer ezaugarri daukaz?
Gaixotasun honen adierazpenik garbienak gorputzaren nahibako mogimendu kontrolgabeak, desegokipen psikikoak eta funtzino intelektuala galtzea dira.

AEBetan gaixotasun honen inguruan ikertzen dihardue.

Tetrabenacine izeneko botika barria asmatu dabe. Mogimendu inkontrolatuak mugatzen dituen arren, depresinoa eragin leike. Beti dago psikiatra eta neurologoaren arteko kontaktua pertsona horrek medikamentu hori hartu leiken aztertzeke.

Huntingtonaren inguruan ezjakintasun handia dago...

Familiek jakin behar dabe gaixotasunak ezaugarri batzuk dituela. Informazino hori edukita, errezagoa da gaixoaren jokaera eta egoera ulertzea.

Familien artean badaukazue kontakturik?

Ez da erraza izaten. Bakotxa leku batekoa gara. Askok, gainera, gurago dabe euren aldeetik ibili.

Eta gizartearen?

Alzheimerre aitatzten badozu, gitxi gorabehera denok dakigu zer den. Gaixotasun hau ezagutzen ez denez, bere eraginak jentek ezin leikez ulertu. Horrexegaitik, gaixotasuna sozializatzea oso garrantzitsua da.

“Medikuek diagnosi protokoloa bete daien gura dogu; odoleko analisi bat egitea baino ez da”

“Batez be AEBetan, gaixotasun honen inguruan ikertzen dihardue. Botika barri bat daukie”

“Elkartearen bidez esperientziak partekatzea lagungarria dela deritzogu”

Egoera hau zelan bizi izaten da familia barruan?

Gogorra da. Izan be, irtenbiderik aurkitu ezean, badakizu zelan amaituko dozun. Ikerketa guztien bitartez gaixotasunaren efektuak atzeratu guran dabilz. Adituek dinoenez lortuko da, baina noiz ezin leiteke jakin.

Hitzaldi gehiago antolatzeko asmoa daukazue.

Bai. Ekainaren 20an Galdakaoko psikiatra Angel Padierren berbaldia izango dogu. Irailean, Mendekotasun Legea Gizarte Ongizate diputatu Juan Mari Aburtogaz aztertuko dogu. Joan zen barikuan, barriz, Galdakaoko ospitaleko neurologo baten berbaldia antolatu genduen aurrerapauso medikuak azaltzeko.

Mendekotasun Legea zelan baloratzen dozue?

Oraingoan, elkartearen ez dogu lege horretara jotzeko beharrezanik izan, baina irailean Gizarte Ongizate diputatuek batzen garenean ikusiko dogu zer azaltzen deuskun. Gaur egun, ez daukagu lege horren inguruko eritzi argirik.

■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>ZORNOTZA

Greba mugabakoa hasiko dabe Camelot enpresan

Atzo egun osoko lanuztea egin eben langileek, enpresa komiteak deituta

Camelot97-ko—Amaya Telleria taldekoa—langileek greba mugabakoa ekingo deusie astelehenean. Enpresak “abisatu barik eta burofax” bitartez kaleratutako 11 langileak barriro hartzea eskatzen dabe, eta langileak kaltetu bako irtenbide “orokorra” topatzea. Martitzenean, egun osoko lanuztea eta manifestazioa egin eben Zornotzako enpresakoek, horren jarrera salatzeke. Atzo be deitu zituen enpresa komiteak (LAB, ELA eta CCOO).

LABek ohartarazo dauenez, “atea zabaltzea” izan da 11 langile kaleratzea, eta beste 30 lanpos-

tutik gora ei dagoz arriskuan: “Enpresak berak esan deusku eskuak ez deusala dardar egingo kaleratze gehiago sinatzeko”. Horri “onartezina” deritza LABek. Igazko azaroan enplegu-erregulazio espediente aurkeztu eban enpresak, gogoratu dabenez. Orduan 40 langile kaleratu gura zituen; halan be, mobilizazioen aurrean atzera egin eben.

Ordutik alternatibak proposatu ei dira: “Enpresak, baina, ez ditu gauzak konpondu gura. Langileak dirua egiteko zenbaki hutsak dira; dirurik ez dagoenean kalera doaz”, dino LABek. ■ A.B.

Astelehenean hasiko dabe greba langileek, LABek azaldu dauenez

Enpresari 11 kaleratuak barriro hartzea eta irtenbide “orokorra” topatzea eskatzen deusie

>DURANGALDEA

UEMAren profesional euskaldunen gida

Euskaraz bizi gura daben udalei eta herritarrei begira Internet bidez eskainitako Profesional Euskaldun Gida barritzatu dau Udal Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA). Orain urte batzuk egin eben gida, baina orain osaketa “lan handia” egin dabe agertzen diren profesional kopurua “bost bidertuz”: 306 dira zerbitzua ahoz eta idatziz euskaraz eskaini eta gidan izena emon daben deneriko profesional eta enpresak. Izena emoteko edo kontsultarako: www.uma.org

Orain urte batzuk egin zen gida osatzen “lan handia” egin dabe

■kolaborazinoa



Aitor Iturriaga
LAB sindikatua

Izan zirenentzako

Maiatzaren 21erako LABeko kideok greba eguna deitu dugu beste sindikatu batzuekin elkar harturik. Patronalarengandik eta jardunean dagoen gobernu eskuindarrarengandik zein karguak hartzeko prest dauden unionistengandik jasotako kritikak, gauaren ostean eguna etortzea bezain espero izatekoak ziren. Dena dela, oso adierazgarriak dira zenbait sindikaturen adierazpenak; CCOO eta UGTrenak, bereiziki. Biek ala biek, patronalak bezain sutuki salatu dute grebarako deialdia, nahiz eta azkenean onartzen diguten eskubidea, izan, badugula horretarako. Besterik ez genuen behar! Nahiz eta INEMeko ilarak kilometrotan neurtzen hasiak garen, ez omen dute ikutzen greba bezalako muturreko tresna bat erabiltzeko beharrik.

Gobernu desberdinek hartutako neurriek, arazoari muinetik heldu beharrean, krisi hau sortu zuten espekulazioa berberei dirua barribarra oparitzeko baino ez dute balio izan. “Basapiztia” borrokatu ordez, denon pentsuarekin ari dira gizentzen txikizioa eragin duen piztitzerra. Norbaitek uste baldin badu gobernuak hartutako erabakiak noraezak eta zorabioak eragindakoak direla, oker dabil. Gure agintariak helburu argiak dituzte: erraieraraino ustelduta dagoen sistema babestu nahi dute, azken finean horrek mantentzen baititu sistemaren titere diren politiko ustelen lagun eta elite ekonomikoen poltronak.

Horretarako, baina, ezinbesteko lagun bilakatu dira estatuko bi sindikatu nagusiak; CCOO eta UGT, alegia. Aspaldi utzi zuten bi hauek langileen interesen defentsa. Sistemak asimilatuak ez ezik, berorren engranaiaren parte dira. Diru laguntzen askatik, beraien makroegitura korruptoak elikatzea dute helburu bakar.

Borroka, langileekiko konprometua eta abar, hitz arrotzak dira beraientzat. Horregatik urduritzen dira besteak mugitzen garenean. Gaur ez direna eta noizbait izan zirena gogorarazten dielako; hots, langileen sindikatu.

>DURANGO



Martitzenean egin eban manifestazioa, lurretatik Durangoraino, CCOO-Euskadi sindikatuak. A.B.

CCOO-Euskadik manifestazioa egin dau

Ez da zure krisia. Baina, zure eskubideak dira. Defendatu! Lelo horregezag manifestazioa egin dau asteon CCOO-Euskadi sindikatuak, Iurretan hasi eta Durangoraino. Euskadi “gogor kolpatzen” diharduen krisi ekonomikoaren testuinguruan langileei zuzendutako informazio kanpaina jarri dau mar txan sindikatuak, eta horren baitan deitu dabe manifestazioa. Bertan, CCOO-Euskadiko Idazkari Nagusia den Unai Sordok be parte hartu dau.

Aurretik, CCOO-Euskadiko delegatu sindikalen asanblada egin eben, martitzenean bertan, Iurretako Ibarretxe kultur etxean. Gaur egungo egoera eta horri aurre egiteko proposamenak izan ditue aztergai. Sordok ez eze Konfederazio Zuzendaritzako beste zenbait kidek be parte hartu dabe egindako batzarrean.

Iboizabal, 3A behe, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
F. 94 681 84 91
M. 600 267 373

a-metz
[barne]diseinua

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erreformat
Gremioen
koordinazioa
Obra berriak
Altzariak
Osagarriak

www.a-metz.com

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

KULTURA[>]

ANTZERKIA > EMANALDIA

Sarean, harien bitartez mugitzen diren txotxongiloekin

Badalonako Anita Maravillas taldearen tailerrean imaginatu, pentsatu, diseinatu eta sortutako txotxongiloak izan dira San Agustin kulturguneko oholtzaren gainean. Anita Maravillas-eko kideen eskuek haria baliatuta moldatutako txotxongiloak.

Hariaren bitartez aktoreek maneiatzen dituzten sorginak dira *Sarean Sun Sun* ikuskizuneko protagonistak. Heldu zein gaztetxoentzat prestatutako ikuskizuna da lan-taldean Miren Larrea zornotzarra eta Iam Agorria elorriarra tartean dituen Kataluniako txotxongilo taldeak ikuslego hain zabalerako sortzen duen lehenengo emanaldia; Zornotzan estreinatu zutena eta

domekan San Agustin kulturgunera ekarri zutena.

Txotxongilogintzan dagoenik eta teknika zailenarekin –denbora eta lan gehien eskatzen duenarekin–, harizko txotxongiloekin egiteko pentsatutako lana da *Sarean Sun Sun*; panpinei mugimendua eta adierazkortasuna ematea helburu duen lan-taldearen ahaleginaren emaitza.

Bestelakoa, desberdina da San Agustin kulturguneko hurrengo hitzordua: Glu Glu taldearen *Marika de Playa* da bihar 20:00etarako programatu dutena. Barre egiteko gogoz dagoen ikuslego helduarentzako proposamena da, besteak beste, Patxi Perez aktore ezaguna antzezle zerrendan duena. ■ I.E.



Kepa Aginako

12 'Ezker eskuma' antzezlan

Loli Astoreka eta Iñake Irastorza antzezle dituen *Ezker Eskuma* antzezlan dago gaur gauerako Berrizko kultur etxean programatuta. Emakume biri buruzko istorioa.



13 Angel Alvarez "Campurriano"

Matienako lantokian San Prudentzio jaietan inauguratuko duen erakusketako lanei azken ikutuak ematen topatu dugu "Campurriano".

GEURE
DURANGALDEAJ.M. Urrutia, "Txotxe"
Irakaslea

Liburuak

Liburuak liburu... Azken asteotan liburu batek ezusteko arrakasta lortu du salmentetan, "best-seller" horien parean jarritz. Potosí hirian (Bolivian) eskuratu nuen, kaleko postubatean. (Kopiak dira originalak oso garestiak baitira). Liburu honen kopiaren kopiaren kin jarri nintzen kafetegiko terrazan, garai batean munduko hiri-rik aberatsena izan zenaren eta orain mendeetako lapurretaren historiaren erakusle den hirian.

Las venas abiertas de América Latina zen liburua, eta bertan pasarte luzeak daude Potosí buruz, eta, terraza hartatik, kontinente honen zainetan sartzeko aukera izan nuen liburua eskuan nuela. Irakurtzen ari nintzela, behin eta berriro etortzen zitzaidan burura "*Vales más que un Potosí*" esaldia, eta han, etxetik urrun, ulertu nuen esanahiaren dimentsio osoa.

Terrazatik, "Cerro Rico", munduan egon den zilar meategirik handienaren tontorra ikusten nuen, historiako lapurretaren erraldoi baten lekuko isila. Gozatzen ari nintzen, Eduardo Galeanok istorioak kontatzeko duen trebeziarekin, eta, era berean, lotsatuta sentitzen nintzen mendeetan kontinente honek pairatu duen egoera sozial eta ekonomikoarengatik. Basakeria, genozidioa, lapurretaren kapitalismo basatiaren laborategia... Nola agertu hitz gutxitan gertatutakoa?

Liburuak ezusteko saltoa eman du, ez salmenten zerrendetan bakarrik, keinu bati eta hedabideei esker denen ahotan dagoelako. Keinu ederrarenetan, baina ea ez den gelditzen ohe ondoko mahaitxoan hautsa hartzen. Liburua ona da zalantzarik gabe, baina, akaso, horrelako liburu interesgarri zein salatzaile gehiago ikusi beharko genituzke hedabideetan eta, akaso, eszenifikatzen ari diren mundu berri hori gauzatzeko litzateke.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Emakumeen istorioak kontatzen dituen antzezlanak dela jasotzen du Glu Glu taldearen sinopsiak *Ezker eskuma* buruz. Emakume biren istorioa da, zehazki, gaur 22:00etan Berrizko kultur etxean ikusgai duzuen *Ezker eskuma*; emakume bi horien bakardadearen eta laguntasunaren kontakizuna.

Rosa eta Sara dira antzezlaneko protagonistak; bakoitza bere etxean bizi diren emakume heldu bi. Bizitzak etxe bereko solairu berean elkartu ditu. Solairua eta laguntasuna omen dira konpartitzen dituzten bakarrak.

Itxura batean oso
desberdinak diren
emakume bi dira

Eskarmentu handiko antzezle bi, Loli Astoreka eta Iñake Irastorza, dira *Ezker eskuma*: etxe-koandrea eta senar isil eta anonimorekin bizi da bata; bakarrik eta etxetik kanpo lan aspergarria duen emakumea bestea. Ezkerra eta eskuma. Ikuspuntu absurdu eta surrealista batetik lantzen da antzezlanean emakume bion bizimodua eta hain desberdinak izanik duten adiskidetasuna zein

'Ezker eskuma': auzokide biren adiskidetasunari buruz

Gaur 22:00etan izango da 'Ezker eskuma' Berrizko kultur etxean



dituzten haserrealdiak. "Umore-rik galdu gabe, baina txiste errazikegin gabe", ekoizleen berbetan.

Eskualdean, Iurretako Ibarretxe kultur etxean izan zen duela urtebete antzezlan hau ikusteko

Loli Astoreka eta Iñake
Irastorza dira antzezleak

aukera; iazko apirilean izan zen *Ezker Eskuma* Iurretan. "Elkarren beharra duten emakume biren egunerokotasuna" erakusten duela antzezlanak esan zigun orduan Loli Astoreka aktoreak. ■ I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

Vietnameko neskatila baten istorioa filmagai

Hamar urteko neskatila da San Agustinen gaur emango duten filmeko protagonista

Mui izeneko hamar urteko neskatila baten bizimodua kontatzen du gaur, Uztartuz elkartek antolatuta, San Agustín kultur gunean eskainiko duten filmak. Vietnamen, hamar urteko neskatila baten bizimodua da Cannes-ko jaialdian saritua izan zen Anh Hung Tran zuzendariak 1993an ekoiztuen *El olor de la papaya verde*.

1951 urtean girotutako filma da apirilean Durangaldeko ikusleei eskaintzeko Uztartuz elkartek aukeratu duen *El olor de la papaya verde* hau. Ohiko moduan, gaur 19:30ean da San Agustinen film emanaldia. ■ I.E.



BERTSOLARITZA > TAILERRA

DF Bertsozale Eskola ipiniko dute maiatzean martxan Plateruenean

Maiatzaren 5a arte emon leiteke izena

Durangaldeko bertsozaleei zuzenduriko sei saiok osatzen dute Durangoko Plateruenean antolatu duten DF Bertsozale Eskola tailerra. Maiatzaren 5ean hasita, martitzenero 19:30 eta 21:00ak bitartean Plateruenean izango da hitzordua.

Bat-bateko bertsogintzaren nondik norakoak, Bertsolaritzaren historia, Bertso jarriak eta Gaijartzailetza izango dira sei saioretan landuko dituzten arloak. Saiok gidatzen edo kasu denean berbaldiak eskaintzen Igor Elortza, Xabier Amuriza eta Maialen

Lujanbio bertsolariak eta Josu Goikoetxea gai-jartzaileak arituko dira. Modu jostagarri eta parte-hartzailean bertsozaleen artean sakondu gura duenak 946030100 telefono zenbakian edo kultura@plateruena.net helbidean eman dezake izena. ■ I.E.

Bertsolariak eta
gai-jartzaileak izango
dira saioretako gidariak

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net



APIRILAK 26 17:30etan
OLGETAN
TAILERRAK ETA JOLASAK
AISIALDIA EUSKARAZ. Sarrera doan.

MAIATZAK 1-2 12:00etan
IV. PLATERUENA
SKATE TXAPELKETA
SKATE TXAPELKETA. Sarrera doan.

MAIATZAK 2 22:00etan
ENTOMBED (SWE) +
COBRA + RHINO
KONTZERTUA. Sarrera: 18-20 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

MARIKA DE PLAYA

Glu Glu Producciones (Bilbao)

Apirilak 25
larunbata 20:00etan

San Agustín
KULTUR
GUNE
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburua

Tf.: 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

ARTEA > ELKARRIZKETA

Zenbat urte daroazu Matienako lokal honetan lanean?

Zura, harria eta marmolagaz lanak egiten 32 urte neukazela hasi nintzen, eta lokal honetan orain 30 urte ingurutik dihardut. Aurretik eskulangintzan aritu barik, Valladoliden bizi nintzela hasi nintzen holako lanak egiten. Eta gero hemen be jarraitu neban: GACKo lanaren ondoren, gaueko hamaikak inguru arte egiten neban lan.

Zein izan zen egin zenduen lehenengo lana?

Bartzelonako Sagrada Familia egin neban egurrean, eta torre bien artean nire ezkontzako argazkia ipini neban. Bigarren lanean, dantza mexikar bateko irudia zizelkatu neban. Inorke eustan erakutsi, eta bere akats eta guzti be jenteak gogoko eba-la ikusi nebanez jarraitu egin neban holako lanak egiten.

“Inork ez deust lan honeek egiten erakutsi, neure kontura ikasi dot”

“Esku eta besoetako tendoiek asko sufritzen dabe halako lanak egiten”

Orain bertan mahai gainean dozuna zelan sortutakoa da?

Hau enkarguz sortutakoa da. Sarritan egiten ditut enkarguzko lanak orain: enkargu txikietatik sortzen dira obra garrantzitsuagoak. Oraintxe amaitu barri dot mahai gainean dodan azken lan hau, eta denporalditxo batez erlaxatuta egoten aha-legenduko naz, eskuie be deskantsua emoteko: tendoiek asko sufritzen dabe halako lanetan.

Zenbat ordu emoten dozu egunean lan egiten?

Zazpi eta hamar ordu artean egoten naz egunero lonjan sartuta, lanean. Hemen sartu eta atera be ez naz egiten! Lan bat egiteko, esaterako, 1.300 ordu emon neikez, eta gehiago edo gutxiago beste batzuetan; obra-aren arabera izaten da irau-pena. Baina oso lan geldoa da, zehaztasun handikoa.

Aurrez be erakusketarik antolatatu izan dozu, ezta?

Bai, hainbat bider egin ditut erakusketak: Abadiñoko armarrria egin nebanean be erakusketan izan zen. Erakusketa barri hau apirilaren 29an inauguratuko dogu: erreztaldi bat be egingo dot erakusketaren inaugurazino ekitaldirako. Maiatzaren 8a arte izango da nire lan guztien artean hautatutako bederatzi lanen erakusketa Errota kultur etxean.

“Kasuan kasuko materialera egokitu behar izaten dot hasikera batean osatzen dodan marrazkia”

Apirilaren 29tik maiatzaren 8a arte izango da Errota kultur etxean ikusgai Angel Alvarez “Campurriano” abadiñarraren eskultura lanen bilduma. Matienan daukan tailer txikian hartu gaitu orain hiru hamarkadatik eskulangintzan diharduen artisau autodidaktak.



Iban Gorriti

Eskulturen lehenengo ideia marraztu egiten dozu, zizelagaz lanean hasi aurretik?

Bai, holan egin ohi dot. Baina egia esan, marrazkia eta erreallitatean materialean sortzen dozuna ezin da berdin-berdina izan. Kasuan kasuko materialera egokitu behar izaten dot hasikerako marrazkia. Xehetasun txikiak egitea oso gatxa izaten da batzuetan, eta proportzinoak mantentzea be bai.

“Obra aberasteko oso lagungarri izaten da askotan besteen eritzia”

Lantokiko atea beti zabalik izaten dozu?

Buruari bueltak emoten hasten naz lehenengo, eta hemen nagoenean, batzuen eta besteen artean beti ikasten dozu zeozer: hasikerako ideia hobetu eta aberastu. Behatu eta ikasten jakitea da gakoa. Hemen beti dago jentea. Burua ilunduta dozun momentuetan lagun-

garri eta aberasgarri izan leiteke jentearen eritzia.

Artisautza azoketan be erakusten dozu zure lana?

Bai, erakutsi izan dot. Mundu honetan dabilzen beste batzuekin berba egiteko eta ikasteko modu bat dira artisautza azokak be. Nik gauza batzuk dakidaz, eta besteek beste batzuk. Oso garrantzitsua izaten da azoketako hartu-emon hori.

“Sosegatzen laguntzen deust tailerrean nagoela olerkiak idazteak”

Erakusteaz gainera saldu be egiten dozu azoketan?

Bai, baina egiten ditudan balio oso handiko piezak izaten direnez, oso gatxa izaten da zeozer saltzea. Saldu askorikez dot egiten, baina egiten dodan lana eza-gutzero emoteko eta nire lana ikusi eta gustuko dauen jentearen enkarguak lortzeko modua dira azokak.

Material bakoitxak bere berezitasunak izango ditu: batzuekin lan egitea zailagoa izango da, ezta?

Bai, noski. Erabiltzen dodan material bakoitxak bere denpora eta langintza behar dau: bada-goz koadro batzuk, esaterako, pagoan bakarrik landu leitekezenak –burdina besteko gogorra da pagoaren zura–, haritzagaz edo Gineako zuragaz ezin-golitzatekezenak egin. Gitxinaka joan naz materialen ezaugarriak ezagutzen.

Esan dozunez, eskulturetan inspiratuta sortutako olerkien erreztaldia egingo dozu erakusketaren inaugurazinoan.

Beti izan dot poesia gogoko, baina egia esan orain arte ezin izan dot askorik landu, eta alboratuta izan dot apur bat: holako lanetan nabilenean sortzen jat obragaz hartu-emona daukan poesia. Hementxe, tailerrean bertan sortzen ditut olerkiak be, eta gero buruz erreztatzen ditut. Tailerreko lanean, erlaxatzen laguntzen deust poesia idazteak. Eskulturak osatzeko zizelagaz kolpeak jotzen ditudan moduan lotzen ditut olerkietako berbak be. ■ I.E.

“Ezagutzera emon eta enkarguak lortzeko aukera izaten dira azokak”

“Gitxinaka eta lantzen joan nazen heinean ezagutu dot material bakoitxa”

ERITZIA[>]

Gutunak @

Labore transgeniko eta ez transgenikoak elkarbizitzea ezinezkoa da

Eusko Jaurlaritzaren "koexistentziari" buruzko dekretuak baldintza batzuetan elikaduratik kanpoko labore transgenikoak onartzen ditu, kutsadurari atea zabalduz. Euskal Herriko gizarteak ez ditu transgenikoak onartzen.

Eusko Jaurlaritzak labore transgenikoak eta ez transgenikoak (konbentzionalak eta ekologikoak) elkarbizitzeari buruz onartu duen "Koexistentzia" Dekretua dela-eta, EHNEk zera azpimarratzen du:

Euskal Herriko gizarteak ez du labore transgenikorik onartzen. 2007an gizarte talde inportanteenak (nekazaritza, ingurugiro, kontsumo eta langile sindikatu arlokoak) eskutitz bat bidali zioten espiniar Estatuko delegatuari, honek gai honetan ardura duten erakunde guztiei zabal diezaieen, honako mezua: merkatuan onartuta edo onar daitezkeen barietate transgeniko guztiei baimena kentzea.

Euskal gizarteak aipatu "koexistentzia" hori ez dela posible uste du. Horrela adierazi zioten lehen aiptaturiko gizarte taldeek Jaurlaritzari 2008ko irailean mahai-gauean zegoen "koexistentzia" dekretuaren zirriborroa aztertu eta gero.

Talde hauen transgenikoen kontrako jarrera dokumentu teknikoetan eta esperientzian oinarritzen da: labore, hazi eta uztetan kutsadura transgenikoa nozitu duten nekazarien esperientzia oso txarra izan da, ekonomia eta hazi iturri mailan eragin kaltegarriak jasoz eta gainera transgenikorik gabe ekoizteko aukeratzearen eskubiderik gabe geratuz.

Eusko Jaurlaritzak transgenikorik gabeko debekua abere zein gizakien elikadurara bakarrik mugatzen du. Dekretuak ez du, ordea, farmazia, nekazaritza-erregai eta erabilera industrial arloetan eraginik. Ez du edozein erabilera kutsadura transgenikoa gertatu ahal dela kontutan hartzen. Nahiz eta arto, azukre-erremolatxa, koltza edo patata transgenikoak nekazaritzatik kanpoko erabilera izan, nekazaritza laboreak kutsatuta gertatu ahal.

Transgeniko berriek ere (erauzte genetiko, TRUG, hiltze baldintzatua, etab.) ez dituzte kutsadurarik gabeko transgenikoak bermatzen, baina Jaurlaritzak hori onartu gabe jarraitzen du. EHNEk, dokumentu teknikoetan eta esperientzian oinarrituta, koexistentzia ez dela posible azpimarratzen du: labore transgenikoa eduki edo ez eduki, tarteko biderik ez dago. Euskal gizarteak ez du labore transgenikorik nahi. Eusko Jaurlaritzak hori kontutan hartu eta erabilera guztietarako transgenikoak debekatzea espero du sindikatuak.

EHNEk Eusko Jaurlaritzaren berriaren Nekazaritza Sailari eskatuko dioten artean, transgenikorik gabeko nekazaritza bermatzeak lehentasuna izango du. Nekazaritza transgenikorik gabekoa izateko ezinbestekoa da inolako labore transgenikorik ez egotea. Horrela pentsatzen dute EHNEk zein hainbat gizarte taldek. Diputazioek arlo honetan kompetentziak dituztenez, mezu hau eurei ere bideratzen die sindikatuak.

"Koexistentzia" ez dela posible sinesten duten gizarte erakundeak:

- Ingurugiro arloa: Eguzki, Ekologistak Martxan, Mutriku Natur Taldea, Sagarrak
- Kontsumo arloa: EKA, EKE, UCE
- Kontsumo ekologiko arloa: Bioalai, Otarra
- Osasun elkarrekin: OSALDE, Sumendi
- Nekazaritza arloa: Bionekazaritza, EHNE,

Ekonekazaritza, Hazien Sarea, Lurreko
• Lan arloa: CCOO, CGT, EGAS, ELA, ESK, LAB, STEE-EILAS, UGT

EHNE sindikatua

Transgenikoak

Gaur egun estatuan transgenikoen egoera salatzeko eta gizarteari ezagutarazteko manifestaldia deitu zuten dozenaka erakundek joan zen asteko zapatarako, apirilaren 18rako Zaragozan. Hiriburua ez da edonola aukeratu: Aragoi estatuan transgeniko gehien landatuta dituen erkidegoa da. Euskal Herrian ez gara libratzen, 5.000 bat hektarea landatuta daude Nafarroan. Estatu espainiarra transgenikoak bultzatzen dituen gorbenu bakarrenetarikoa dugu Europan, gizarteari beste ikuspegi bat ematen ahalegintzen bada ere. Aste honetan bertan jakin dugu Alemaniak debekua ezarri diola arto mota bati naturari eta gizakiei kaltea eragin diezaiokeen ikerketan oinarrituta; hainbat herrialdetan debekatuak daude aspaldi.

Gaur Egun munduan hainbat landare transgeniko onartuak daude komertzializatzeko, agian ezagunenak artoa eta soja dira, baina algodoia, erremolatxa, berenjenak, tomateak eta abar landatzen eta saltzen dira, bioteknologia laborategietan dozenaka hazi prest-prest daude onartzeko zain, baina, gure ustez, naturak ehundaka urtetan sortutakoa suts baten gena hartuta edo armiarma batena sartuz hobetu dutela esatea ez da oso normala; bai, ordea, arriskutsua.

Hemen bertan landatuta ez izateak ez du esan nahi gure elikadura katean ez daudenik sartuak: Jaurlaritzak euskal erkidegoa transgenikoz garbi izendatuta badauka ere iruzurra egiten du hainbat arlotan; adibidez, supermerkatuetan saltzen diren produktuekin edo Eusko Labelarekin. Gaur egun, animalien pentsuak ia 100% transgenikoz kutsatuta daude, supermerkatuetan hainbat eta hainbat produktu transgenikoz eginak dira, eta ez dago kontrolik honen inguruan, ez baita beharrezkoa etiketatzen jartzea. Aukera bakarrenetarikoa Greenpeace gida gorri-orlegia erabiltzea da.

Kontsumitzaileek estatuari eta Jaurlaritzari eskatzen dioguna elikaduraren inguruan informatzeko eskubidea bete dezaten da; multinazionalen menpekotasuna honen inguruan apur dezatela. Genetikoki manipulaturako haziak ez ditzatela landatu, naturari eta gizakioi egiten dioten kalteak gaur egun frogatuak baitira. Nekazarien eskubideak defendatzen dituzten multinazionalen aurrean. Eskolako jantokietan transgenikoak debekatzea, janari biologiko eta ekologikoa ume eta gazteentzat bultzatuz.

Marisatsa, produktu ekologikoen eta bidezko merkataritzaren kontsumorako Durangaldeko elkarte

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN
zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

kolaborazinoa



Julen Orbegoza

Jatetxeko beharra

Jatetxe bateko sukaldean ari naiz lanean. Ingalaterra erdialdean dagoen herri txiki batean. Bezeroek, luxuzko autoetatik jaitsi, zenbait garagardo edan eta 'fish and chips' klasikoa jaten dute. Nire betebeharra bezeroek zikindutakoa garbitzea da. Platerak garbitzen dituen tramankulu baten alboan pasatzen ditut hamar-hamabi ordu egunean. Zaborrak kontainerretan jarri, zorua garbitu... eta aita-gure bat ere erreztatzea tokatu zait, egun osoa patatak zuritzea delako kalbariorik gogorrena!

Zerk bultzatu dezake kazetari bat horrelako zereginetan nahastera? Askok sufritu dut, eta sufrizten dudan bakoitzean asko ikasten dut. Ingelesa ikastera etorri nintzen, eta etxean baino ingeles gehiago ikasi dut. Garrantzitsua, bizi-espereintzia polita izan dela onartu dezaket. Kazetari batek munduan zer gertatzen den ulertu behar du, irakurleari ahalik eta ondoen gertatzen dena azaltzeko. Nik ez dut, agian, inoiz errepikatuko; baina edonori gomendatzen diot, kazetari moduan hezi, hazi eta bizi nahi duen edozeini.

Euskal Herria itzuliko naiz, eta astean 35 ordu lan egiten duen funtzionario batekin topo egingo dut. Aitzakia franko izango du kexatzeko: ordu larregi ordenagailu aurrean, soldata baxua, ordutegi txarra... eta, tontolapiko aurpegiarekin, garraztasunez tratatuko nau (adibide bat jartzearren). Nik sukalde hartako lagunak gogoan izango ditut. 70 orduko lan-asteak, soldata barregarriekin: 70 ordu zutunik, sukalde zaratatsu hartan, besteek irentsiko duten jakia prestatzen eta plateretan utziko duten kaka garbitzen. Eta irribarretsu gogoratuko ditut. Lanean gaudenean irribarretsu aritzen garelako. Zoriontasuna norberak landu eta lortzen duela ikasi dudalako. Bai, egia da, ingelesa ere zertxobait hobetu dut.



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko apirilaren 24a - 8. urtea - 327 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Maria Gonzalez,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia


Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhua Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



traña-matienako jai egitaraua

Apirilak 24, barikua

- 22:30etan, Musika jaialdia, Traña plazan, tabernek, txosnek eta Udalak antolatuta:
 - Kruders
 - KOP

Apirilak 25, zapatua

- 10:30etan, Eskola arteko benjamin mailako aretoko futbol partidua: Matiena Herri Eskola vs Gernikako Mertzede Ikastola.
- 11:30etan, Sei-zazpi urtekoen futbito txapelketa, eskoletan: Traña-Matiena H.E., Zelaieta H.E. eta Berriz.
- 14:30etan, Herri-bazkaria, Traña plazan, tabernek, txosnek eta Udalak antolatuta (euria eginez gero, frontoian izango da). Txartelak txosnetan eta tabernetan eskuratu leitekez 15 euroan.
- 16:00etan, Tute txapelketa, herri eskolako gimnasioan.
- 22:00etan, Bertsolariak, Errota kultur etxean: Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Igor Elortza, Sustrai Colina eta Xabi Paya. Gaijartzailea: Maite Berriozar (sartzeko gonbiteak Errota kultur etxean dagoz eskura; sarrera bi pertsonako, goitik jota).
- 23:00etan, Africa taldeagaz jaialdia, Trañabarren etorbidean.

Apirilak 26, domeka

- 11:00etan, Junior mailako txirrindulari lasterketa: San Prudentzio Saria.
- 18:00etan, 'Super Plast' kale ikuskizuna (Hortzmuga antzerki taldea), Traña plazan (euria eginez gero, frontoian).

Apirilak 27, astelehena, Donien Atxa Eguna

- 19:00etan, Kuadrila guztiak batuko dira Trañako zubian.
- 20:00etan, Donien Atxa altxatuko dabe herritarrek. Kessenge txarangak alaituko dau giroa. Aurretik, Iluntze dantza taldeak eskainiko dau dantza saioa, eta urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia be egingo dabe.

Apirilak 28, martitzena San Prudentzio Eguna

- 11:00etan, Meza nagusia.
- 16:00etatik 19:00etara, Umeendako olgetalekua egokituko dabe, Traña plazan (euria bada, frontoian izango da).
- 16:00etan, Afrikako tailerrak, herri eskolako gimnasioan.
- 18:30etan, Angel Alvarez "Campurriano" eskultore abadiñarrak bere lana aurkeztuko dau, Errota kultur etxean. Aldi berean, poesia errezitaldia egongo da. Erakusketa maiatzaren 9a arte izango da zabalik.
- 18:00etan, Atxikistan taldearen eskutik umeendako jaialdia, Traña plazan.

Apirilak 30, eguena

- 19:00etan, Play-back txapelketa, Errota kultur etxean (sartzeko gonbiteak Errota kultur etxean dagoz eskura; sarrera bi pertsonako, goitik jota).
- 22:30etan, Su artifizialak
- 23:00etan, Rock jaialdia:
 - Kalte
 - Savia.

Maiatzak 1, barikua Mozorro Eguna

- 12:00etan, Elkarteen Azoka.
- 13:30etan, Perretxiko pintxoak, Traña plazan. Geredixa mikologia elkarteak antolatuta.
- 17:00etan, San Prudentzio pilota txapelketaren finala.
- 17:30etan, Xake erakusketa, Pino plazan.
- 18:00etan, Traña-Matienako eskoletako neskatoen koreografia jaialdia, Errota kultur etxean (sartzeko gonbiteak Errota kultur etxean dagoz eskura; sarrera bi pertsonako, goitik jota).
- 21:00etan, 70eko hamarkadan girotutako jaialdia, Trañabarren etorbidean. Tarteetan, Mozorro Txapelketako sari banaketa be egingo dabe.
- 22:30etan, Su artifizialak.
- 23:00etan, Kontzertua, Trañabarren etorbidean:
 - Miticos 70: Tony Ronald, Karina y Micki.
- 01:00etan, Onda Futura diskoteka, Trañabarren etorbidean.

Maiatzak 2, zapatua,

- 11:00etan, Benjamin mailako futbol partidua, Traña-Matienako herri eskolan: Traña-Matiena H.E. B eta Zornotzako Andra Mari I.
- 12:00etan, Paella Txapelketa, Merkatu Plazan.
- 16:00etan, Ugasio Txapelketa, merkatu plazan.
- 17:00etan, Frontenis Txapelketaren finala, frontoian.
- 18:00etan, Tortilla Txapelketa, merkatu plazan.

- 22:00etan, Su artifizialak.
- 23:00etan, Iris taldeagaz erromeria, Trañabarren etorbidean.

Maiatzak 3, domeka

- Goizean, Txistularien kalejira. Geube elkarteak txahala erreko dau, goizean zehar, Traña plazan.
- 10:00etan, Nekazari, Artisau eta Abeltzainen Azoka, Traña plazan.
- 10:00etatik 13:00etara, Umeendako margo txapelketa, Traña plazan (euria bada, frontoian egingo dabe).
- 12:00etan, Herri-kirol ikuskizuna, Traña plazan.
- 12:00etan, Sokatira, Traña plazan.
- 12:00etan, Futbito partidua eskoletan: Traña-Matiena eskoletako amak neska ikasleen aurka.
- 16:00etan, Idi-probak, Trañabarren etorbidean.
- 18:30etan, IV. Danborrada, De Norte a Sur taldeak antolatuta. Sugarri txarangak alaituko dau danborrada.
- 20:30etan, Donien Atxa botako dabe, jaiak agurtuz.

ondo
pasa!

Tienda BEGO



Laubideta 20, behea. Tel.: 94 681 09 82 MATIENA

akr kids

Gobelinas -gazte moda-



Txinurrisolo 10, behea
Tel.: 94 681 44 06
ABADINO



Kepa Aginako

Elkarteen Azoka, nobedadeen artean

Matienako elkarteen lana ezagutzera emongo dabe

Tradizinoak agintzen dauen legez, donien-atxa jasota hasiko ditue ofizialki San Prudentzio jaiak Traña-Matienan. Apirilaren 27an koadriletako kideak Trañaiko zubian elkartuko dira donien-atxa bere lekura eroateko. Iluntze taldeak dantza saioa eskainiko dau. Une hau da aurtengo jaietako kartelak irudikatzen dauena. Azken urteotan egin daben legez, urteko pertsona ospetsuenari saria emongo deusie.

Zapatuan, apirilaren 25ean, Errota kultur etxean antolatuko daben bertso saioak, aurreko urteetan legez, aretoa jentze lepo beteko dau. Mañukorta, Igor Elortza, Sustrai Colina eta Xabi Paya oholza gainera igoko dira Maite Berriozabalek gai-jartzaile dabela.

Aurtengo aldaketen artean, jubilatuen bazkaria egitarautik kendu egin dabe, bihar antolatu-

ko daben herri-bazkarian parte hartu daien. Txartelak salgai dagoz txosna eta tabernetan, 15 euroren truke.

Elkarteen Azoka

Urtero antolatzen diren ekitaldiak ez dira faltako: umeendako ekitaldiak, kirol saioak, tortilla txapelketa, paella txapelketa, musika emanaldiak... Halan be, nobedadeak aurreikusi ditue. Maiatzaren 1ean Elkarteen Azoka antolatuko dabe. Traña-Matienako hamar elkarte inguru batuko dituen topaketaren bitartez elkarteen lana ezagutzera emotea dabe helburu.

Udalak jaietako egitaraura 70.000 euro bideratu ditu. Prentsaurrekoan azaldu dabenez, igaz baino 15.000 euro gitiago gastatuko ditue. "Krisia dela-eta zorrotz jokatu gura izan dogu aurten", argitu dabe.

Mañukorta, Igor Elortza, Sustrai Colina eta Xabi Paya bertsotan arituko dira bihar, 22:00etan, Errota kultur etxean. Maite Berriozabalek ipiniko ditu gaiak.

Gaztetxo eta haurrendako proposenak

Eidabe taldearen *Atxikistan* ikuskizuna izango da San Prudentzio jaietan haurrendako prestatuturiko egitarauan ageri denetariko bat: apirilaren 28an, 18:00etan, izango da emanaldia Traña plazan. Musika eta dantzaren bitartez ezagutzera emongo deutse Abadiñoako umei *Atxikistan* deituriko lurralde imaginarioa. Alaitasuna eta dibertimendua nagusi omen dira *Atxikistanen*, eta amets guztiak egi bihurtzen ei dira bertan. Ametsen maleta prestatu eta martitzenean Trañaiko plazan izango den bidaira gonbidatu ditue herriko ume guztiak.

Egun berean, apirilaren 28an, *Atxikistan* ikuskizuna bakarrik ez, 16:00etatik 19:00ak bitartean be umeendako apropos prestatuturiko gunea izango da auzoko erdigunean: haurrendako jolas parkea izango da; eguraldia lagun bada Trañaiko plazan, eta euria bada frontoian.

Dantzari gazteen emanaldia

Apirilaren 30ean herriko dantzariak izango dira Errota kultur etxeko Play Back Dantza Lehiaketan euren sorkuntzak erakusten, 19:00etatik aurrera. Ikusle joateko, Errota kultur etxean jaso ahalko dira sartzeko gonbidapenak.

Goian aitatutakoaz gainera, herriko dantzari txikienek jaietarako prestatutakoa ikusteko beste hitzordu bat be izango da maiatzaren 1ean Errota kultur etxean: Matienako eskolako haurrak protagonista izango dituen Koreografia Jaialdian egingo dabe, 18:00etan hasita. Jaietan kultur etxean izango diren gainerako ekitaldietarako bezala, Errotan bertan eskuratu leitekez doako gonbidapenak.

Maiatzaren 3an, bestalde, 10:00ak eta 13:00ak bitartean Trañaiko plaza kolorez beteko dau Umeen Pintura Lehiaketak.



Cafetería · Oxford

Tel.: 94 681 88 84

Trañabarren, 7 • MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)

Juan Ramon Azkonizaga

Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzalea:

Cruzcampo, Harbin, Kaliber, Guinness, Harbin, Perla Clara, Perrier, Uña Alcora

Laura plus Ondua

Laura

www.bodegaslauna.com

info@bodegaslauna.com

Tel.: 94 682 41 08

DOHERTY'S

tel.: 946203762

san prudencio 6 matiena(abadiño)

Atzerriko garagardotan espezialistak Pintxoak

Goizeko 7:30etan zabaltzen dugu

Armando - Mary

Trañabarren, 9

48220 Matiena-ABADIÑO

Tel.: 946817368

HOTEL

☆☆

San Blas

"Arrati 2000" Jatetxea

946 814 200 - 946 814 516

Faxa: 946 814 200

Bilbo-Donosti errepidea 32. Km

48 220 MATIENA - ABADIÑO

Gazteak protagonista berezi kirol arloan

Hainbat futbito partidu jokatu ditue

Ido eta adin guztietako kirol ekitaldiak dagoen arren, Sanprudentzioetan gaztetxoek zeresan berezia izango dabe. Benjaminetan areto-futbol partidu bat baino gehiago jokatu da, eta txirrindularitzako San Prudentzio Saria be gazte mailakoa da, besteak beste.

Ikuskizunaren osagai nagusia ilusinoa balitz, munduan ez litzateke biharko partidu biak baino ekitaldi erakargarriagorik egongo. 10:30etik aurrera,

benjamin mailan, Matiena Herri Eskola eta Gernikako Mertzede Ikastola lehiatuko dira eskole-tako zelaian. Ondoren, sei eta zazpi urte arteko futbito txapelketa jokatu dabe Traña-Matiena Herri Eskolak, Zelaia Herri Eskolak eta Berrizek. Azkenik, maiatzaren 2an, benjamin mailako beste neurketa bat jokatu dabe Traña-Matiena Herri Eskola eta Zornotzako Andra Mari Ikastola taldeek. Nork jakin etorkizuneko izarren lehenengo ostikadak

izango ez ete diren Matienakoak. Holantxe hasi ziren beste hainbat be.

Pilota be kirol ekitaldietako protagonista nagusietakoa bat dogu. San Prudentzio Txapelketa azken txanpan sartu da, eta finalak maiatzaren 1ean jokatu dira, 17:00etan hasita. Kadete, gazte eta nagusi mailan banatu dira txapelak. Hurrengo egunean eta ordu berean, Frontenis Txapelketako finalak jokatu dira. Horrez gainera, etzi 11:00etan gazte mailako txirrindulari lasterketa korrituko dabe, eta maiatzaren 3an, 12:00etan, herri-kirolak dagoz plazan.

Azoka eta Herri-kirol Jaia

San Prudentzio jaiei amaiera emoteko egunean, maiatzaren 3an, ez da girorik faltako Traña-Matienako kaleetan. Azoka eta herri-kirolak izango dira eguneko zita nagusiak.

Goizeko 10:00etan hasiko da Nekazari, Artisau eta Abeltzainen Azoka. Traña plazan produktu eta abelburuak erakutsiko ditue ekoizleek; Abadiñoako zazpi abeltzain izango dira bertan. Gainera, Geu Be elkarteak bere ekarpena egingo deutso egunari, txahal bat errez. Okela pintxoak dastatu ahal izango dira goizean zehar.

Okela pintxoak dastatu ahal izango dira goizean zehar, Geu Be-koei esker

Udal ordezkariak esandakoaren arabera, azken egun honetan baserri giroagaz eta herri-kirolagaz lotutako ekitaldiak sartzen saiatu dira, egunari "izaera berezia" emoteko.

Aizkora, harria eta soka

Eguerdiko 12:00etan hasiko dira herri-kirolak. Erakustaldiz betetako jaialdia izango da: Bihurrik aizkora egingo dau, Mari Jose Sardonek harria altxatuko dau, eta Abadiñoako tiralariek sokatiran egingo dabe.

Egunagaz jarraituz, aipatzekoa da aurtan be idi-probak izango direla Trañabarren kalean, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.



Benjamin mailako hainbat futbito partidu jokatu dira jaietan. Txirrindularitzak, frontenisak, pilotak eta herri-kirolek osatzen dabe jaietako kirol egitaraua

ESTANKO ALBERDI

Zubiarte, 7 Tel.: 94 681 40 33
MATIENA

Oregi Taberna

☎ 94 681 07 83
Matiena (Abadiño)

Kirolak
JAVIER ELORRIAGA

KIROL ARTIKULUAK • GARAULURAK
MENDI BIKLETAK • LEHIAKARI NEURRIK, HAURRENTZAT
KONPONKETAK • SALDU GONDOZINGO ZERBITZUA
DEUTARIK OSAGARRI, ARROFA ETA ABARRETAN

Trañabarren, 13 bi. 1 • 48220 MATIENA-ABADIÑO • Tel.: 94 681 28 64

salmenta, konponketa eta boutique

MOTOS TABIRA

konponketa ofiziala
BIBEL • SCORPA • ALPI
WEBBAY • PANGLOSS

☎ 94 681 40 68
www.motostabira.com

Pst. Anzola, 10 b. parkea 48220 MATIENA-Abadiño

anboto

Durangaldeko usaina ezin doutsugu transmititu, baina Durangaldea entzun, ulatu eta ikusteko...

anboto komunikabideak

caribu
www.caribu.es

Juan Antonio Unzueta, 4 • Matiena • 94 620 43 24

EROSKI
ABADIÑO

40 urte zurekin

ondo pasatu San Prudentzioak

BETSAÏDE
ENGLISH SCHOOL

- 1. eta 2. Hezkuntzako errefortzu klaseak
- Ingeles maila guztiak
- Atzerrira bidaiek
- Intentsiboak

Trañabarren, 13 - 3 behea
48220 Matiena - Abadiño
Mug.: 637 41 64 38

Musikak protagonismo handia izango dau aurten

Mitikoak eta egungo talde indartsuak

Gazteak eta ez hain gazteak. Mitikoak eta ez hain mitikoak. Zeresana emongo dauen musika eskaintza dakarre aurten Sanprudentzioek: nobedade moduan, Karina ospetsuaren taldea etorriko da; gazteei zuzenduta, KOP eta Savia talde rockeroak izango dira eszenatokian, gitarrek astintzen. Hemengo taldeek eta erromeriak edo berbenak be izango dabe euren lekua.

Karina izango da aurten Trañabarreneko izarra. Beragaz batera, Tony Ronald eta Micky be etorriko dira, hirurek Miticos 70 taldea osatzen dabe-eta. Maiatzaren 1eko gauean, mozzorro egunez, hamarkadetan atzera egin ahal izango dabe Traña-Matienara hurreratzaren direnek. Karinak esango leuken moduan, oroitzapen kutxan bilatuko ditue abestiak: *Enseñame a cantar*, *Help*, *Soy rebelde* edo *Buscando en el baul de los recuerdos* bera entzuteko aukera izango da 23:00etatik aurrera.

Aurrera begira Traña plazan

Gutziz bestelako musika eskainiko dabe Traña Plazan joko daben taldeek. Kataluniako KOP taldea eszenatokietara itzuli da aurten, bere abeslaria espetxean egon eta gero.

Doinu gogorrek eta letra errebindikatiboak nahasten ditue, tartean Euskal Herriagazko elkartasuna adierazoz. Jarraitzaile ugari ditu inguru honetan KOPEk, eta seguru plaza bete egiten dabela. Euren aurretik Abadiñoako Kruders taldea igoko da oholtzara; aukera aparta izango da eurentzako, dudarik barik. Gaur izango da taberne, txosnek eta Udalak antolatutako kontzertu hau, 22:30ean.

Apirilaren 30ean beste talde ezagun bat gerturatuko da Traña-Matienara: Savia taldea, hain zuzen be. Bertako kide batzuk Sober talde arrakastatsuan aritu ziren, eta bere esentzia aurkitu leiteke, eboluzionatu daben arren. Kalte taldea izango dabe aurretik, 23:00etan hasita.

**Nobedade moduan
Karinaren taldea dator;
gazteei zuzenduta, KOP
eta Savia talde rockeroak
izango dira eszenatokian**



GISASOLA PENTSUAK SL

- Pentsuak oro har • Haziak • Etxeko animaliak • Opariak • Sasolko loreak • Arrain Tropikalak • Lorezaintzako produktuak • Indioilar, oilo eta oilaskoaren salmenta • Nekazaritzako burdindegiko produktuak •

Trañabarren, 27 • 94 681 65 67 • 48220 MATIENA-ABADIÑO

HARATEGI PINILLA

ARTISANALAK ESPEZIALIZATUA

BASERRIKO OKELA

Trañabarren, 29
Tel.: 94 681 51 27
MATIENA • ABADIÑO

ATXA

burdindegia

Tresneria • elektrizitatea • opariak

Trañaetxoste 5 • 94 681 65 49 • Matiena

MURUETA BASERRIA

- 5 logela bikaltz
- komuna
- telebista
- telefonoa

bisitariaren gozamenarako beharrezkoak diren erosotasun guztiak

Tel.: 94 623 26 10 • Sakelakodi: 658 747 471
Fax: 94 620 38 40 • Murieta, 4 48220 ABADIÑO
e-mail: karmentera@fena.es

neumáticos ETXEBARRIA

VIA LIDER

KAMIOT ZERBITZUA

24 ORDUAK: 629 42 29 06

EUBA SUZOA, Z/g 48340 AMOREBIETA - ETXANO (BIZKAIA)
Tel.: 94 630 80 10 - FAX: 94 630 80 18

Unibertsitate industri. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (BIZKAIA)
(hiper eroskiaren ondoan)
Tel.: 94 629 25 20 - FAX: 94 620 86 22

Garage Miguel

- GARRIKETA
- TAPIZERIAK
- MEKANIKA
- GURPILAK

Arzubi, 10 A
1. Pabiloia
48220 Matiena
Tel.: 94 621 91 61
Fax: 94 621 62 64

LA MAGDALENA

BASERRI TRESNETARAKO TRANSMISIOAK

ondo pasatu

San Prudentzioetan

ZURE denda

Ogi beroa egun osoan
Gozogintza-opilgintza
Pastak salte zain paketeen
Esne-jakiak
Fruitu lehorrak eta gozokiak
Jostailuak
Txarkuteria
Delicatessena
Jangailak
Edari hotzak
Enpanadak
Pizak
Ogitarteko hotzak eta boroak

Mugikortzen bazarrean eta Interneten
Erosatzen eta bidaltzen dituzte produktuak
Jantzeria eta bazarreko produktuak

San Prudentzio, 6
Tel.: 94 620 19 01
Traña-Matiena
48220 ABADIÑO

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Apirilaren 24an eta 25ean

KRISIAK JOTA

Komikotasuna erabiliz, berrogei urteak beteta, krisiak jota dagoen gizonezko baten estualdiak aurkezten deuskuz Patxi Perez aktore ezagunak sortutako 'Marika de Playa' antzezlanak. Mila Espigagaz batera protagonista lez be ikusi geinke Perez. Zalantza-itsaso baten murgilduta, bakardadetik ihes egin eta desioak lortzeko irtenbidearen bila diharduela, hondartzan, ihesean dabilen eta eguzkia lasai hartzea gura dauen emakumea topatuko dau.

ANTZERKIA

BERRIZ

» **'Ezker Eskuma'** (Glu Glu Producciones), apirilaren 24an, 22:00etan, Kultur Etxean.



DURANGO

» **'Marika de Playa'** (Glu Glu Producciones), apirilaren 25ean, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

ERMUA

» **'Hot Burrito'** (Pez en Raya), apirilaren 24an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **'Marika de Playa'** (Glu Glu Producciones), apirilaren 24an, 21:00etan, Zornotza aretoan.

BESTEAK

BERRIZ

» **Dorletara irteera**, apirilaren 26an, 09:30ean, Olakuetan. Berriz Bizikletari elkarteak antolatuta.

DURANGO

» **Euskal Baserriaren Ekomuseora irteera**, apirilaren 30ean, 15:15ean, Landako autobus geltokian (Butafumeiro aurrean). Izena emoteko Adinekoen Udak Egoitzara jo leiteke (94 620 03 21).



IURRETA

» **'Iurreta ezagutu'** kanpainaren baitan herriko ikastetxeekin hitzartutako bisita gidatuak, apirilaren 24an, eta, maiatzaren 14an eta 15ean.

» **Mendi ibilaldia: Iurreta-Iurreta**, apirilaren 26an, 08:30ean, Maiztegi Guraso Elkarteak eratuta.

MALLABIA

» **Elizondora irteera**, apirilaren 25ean. Jubilatuen elkarteak, Ongizate Sailagaz batera eratuta.

BERBALDIA

MALLABIA

» **'Adimen emozionala'** (Elena

Iraolagoitia psikologoa-Adindu), apirilaren 29an, 16:00etan, Jubilatuen Etxean.

DANTZA

ERMUA

» **Euskal Jaia: Euskal Dantzak**, apirilaren 26an, egun osoan zehar, Orbe Kardinalaren plazan. Gure Ametsa eta Txindurri dantza taldeek antolatuta. **Euskal Jaia**ren barruan **erromeria (Aiko taldea)**, apirilaren 25ean, 19:00etan.

DEIAK

BERRIZ

» **San Pedro eta Santa Isabel jaiak** antolatzeko batzarra Jai Batzordeak deituta, apirilaren 27an, 19:30ean, Kultur Etxean.

DURANGO

» **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

IURRETA

» **Udaleku finkoa eta ibiltaria eratu ditu Kimuak elkarteak**. Uztailean. Izena emoteko Ibarretxe kultur etxera jo leiteke (www.kimuak-elkarte.com / kimuak@kimuak-elkarte.com).

» **Hezkuntzagaitiko diru-laguntzak jasotzeko eskari-orriak aurkezteko**, maiatzaren 8a bitartean, Udaletxean edo Ibarretxe kultur etxean (94 620 03 42 / www.iurreta.net).

ERAKUSKETA

ABADIÑO

» **San Prudentzio jaiak** iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak. Maiatzaren 3a arte, Traña-Matienako Errota kultur etxean.



BERRIZ

» **X. Kaleko Pintura Lehiaketako margoak**, apirilaren 25etik maiatzaren 15era, Kultur Etxean.

DURANGO

» **Elorrioko pintura eskolako**

lanak, apirilaren 26a bitartean, Ezkurdi erakustaretoan.

ELORRIO

» **'Ipuin txotxongiloak'**. Panta Rhei antzerki taldearen txotxongiloak. Apirilaren 30a arte, Iturri kultur etxean.

ERMUA

» **Marrazkiak**. Antonio J. Hernandez. Maiatzaren 3a bitartean, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

» **Amorebieta-Etxanoko Toponi-moak**. Maiatzaren 4a bitartean, Zelaieta zentroko erakusketa gelan. Udalerriko auzo, baserri, etxe, baso eta gainerakoen izenen bilketa-lana, mapak eta argazkiak batzen dira.

» **Bosteko09: Jorge Garcia, Dora Salazar, Begoña Zubero**. Apirilaren 25a bitartean, Zornotza Aretoan.

IKASTAROK

BERRIZ

» **Sexualitatea heldutasunean**. Apirilaren 15ean hasi eta ekainaren 17a bitartean, Kultur Etxean. Eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Hezitzailea Miriam Herbón feminista, barreterapeuta eta soziologoa (94 682 40 36 / berdintasuna@berriz.org)

DURANGO

» **Makrobiotika eta osasunerako sukaldaritza**. Apirilaren 25 eta 26an eta maiatzaren 23 eta 24an. Tina Asensoren eskutik emongo dira Artakuso ekodendak eratutako eskolak, Kurutziaga ikastolan. Izena emoteko eta informazio gehiago lortzeko Artakusora jo leiteke edo bestela honako telefonora deitu: 659 990 740 (Oihana).

ELORRIO

» **Emakume eskolaren baitan barreterapia ikastaroa**, apirilaren 28an, maiatzaren 5, 12, 19 eta 26an eta ekainaren 2an, 18:00etatik 20:00etara. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegi zerbitzua izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

IPUINAK

DURANGO

» **'Behin baten'** Belen Azkarate ipuin kontalariaren eskutik, apirilaren 25ean, Udak Liburutegian: 3-5 urte artekoendako saioa, 17:00etan; sei urtetik gorakoendako 17:30ean.

ELORRIO

» **Munduko kontu kontalariak: Emma Lopez (Valentzia) + Jota Villaza (Kolonbia)**, apirilaren 24an, 22:00etan, Arriola antzokian.



» **Munduko kontu kontalariak: Albert Estrege (Katalunia) + Theresa Amonn (Libano)**, apirilaren 25ean, 20:00etan, Arriola antzokian.



IURRETA

» **Anduriña Zurutuza + Txefo Rodriguez**, apirilaren 29an, 20:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Ipuin musikatuak, euskaraz.

JAIK

ABADIÑO

Sanprudentzioak

» **Kruders + KOP**, apirilaren 24an, 22:30ean, Traña plazan. Txosnek, taberneak eta Udalak eratuta.



» **Eskola arteko aretoko futbola (benjaminak)**, apirilaren 25ean, 10:30ean: Traña-Matienako Herri Eskola vs Gernikako Mertzede Ikastola. Ondoren, 11:30ean, 6-7 urteko futbito txapelketa: Traña-Matienako H.E., Zelaieta H.E. eta Berriz.

» **Herri-bazkaria**, apirilaren 25ean, 14:30ean, Traña plazan, txosnek, taberneak eta Udalak eratuta (txartelak txosna eta tabernetan salgai, 15 euroan). **Tute txapelketa**, 16:00etan, gimnasioan.

» **Bertsolariak: Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Igor Elortza, Sustrai Colina eta Xabi Paya**, apirilaren 25ean, 22:00etan, Errota kultur etxean. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.



» **Africa**, apirilaren 25ean, 23:00etan, Trañabarren etorbidean.

» **San Prudentzio Saria txirrindulari**

lasterketa (juniorrak), apirilaren 26an, 11:00etan.

» **Kale antzerkia: 'Super Plast' (Hortzmuga)**, apirilaren 26an, 18:00etan, Traña plazan.



» **Koadrilen bilera**, apirilaren 27an, 19:00etan, Trañako zubian. Donien Atxa altzauko dabe, 20:00etan. Aurretik, **Kessenge txaranga**, Iluntze dantza taldearen saioa eta **urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia**.

» **Meza**, apirilaren 28an, 11:00etan. **Umeendako jolastokia**, 16:00etatik 19:00etara, Traña Plazan (euria bada frontoian). **Afrikako tailerrak**, 16:00etan, eskolako gimnasioan. **Atxikistan taldeagaz umeendako jaialdia**, 18:00etan, Traña plazan.

» **Angel Alvarez "Campurriano"** eskultore abadiñarraren lanaren aurkezpina, apirilaren 28an, 18:30ean. **Poesia errezitaldia** be egingo dabe.

» **Play Back txapelketa**, apirilaren 30ean, 19:00etan, Errota kultur etxean. **Su artifizialak**, 22:30ean, eta, 23:00etan **kontzertua: Kalte + Savia**, Traña plaza.

IURRETA

San Marko-Oromiño

» **Donien Atxa jasoko da**, apirilaren 24an, 19:00etan. Gauean, afaria San Markos sagardotegian: **Xabier Amuriza eta Gregorio Larrañaga "Mañukorta"** bertsolariak eta **Txiri-Txiri** taldeak giroa.



» **San Marko eguna**, apirilaren 25ean: goizean, **kalejira**, eta, 12:00etan, **meza**. Eguerdian, **herri bazkaria** eta **briska txapelketa** 17:00etan. **Umeendako dantzak eta sorpresak**, 17:30ean, eta, **tortilla txapelketa** iluntzean. Gauean, **Luhartz taldea**: atsedena-dian, **txarri-harrapaketa**; goizaldean **txokolatea**.

» **Meza**, apirilaren 26an, 12:00etan. Jarraian, **Mikel Deuna dantza taldearen saioa**. Eguerdian, **txarri erre pintxoak**, eta, 18:00etan, **asto desafioa**. Jaietako amaiera emoteko **erriña zotz** egingo dabe.

MALLABIA

Berano Txikiko jaiak

» **Meza**, apirilaren 26an. Ondoren,

oilarrapatzea eta txapel jaurtiketa. **Gregorio Larrañaga "Mañukorta" eta Beñat Ugartxe-txea bertsolariek** jardungo dabe, eta, **salda eta txorizoa** banatuko da. **Umeen jolasak**, 17:00etan. Baita **briska eta mus txapelketa** be. Iluntzean, **Zelai eta Bihurri** aizkoran, txingan eta trontzan.

Marixelen jaiak- Areitio

» **Txopoa jasotzea, kanpai iraulketa eta txapligu jaurtiketa**, apirilaren 30ean, 20:00etan. **Bertso afaria**, 22:00etan: **Beñat Ugartxea eta Eneko Abasolo "Abarkas"**. Gai jartzailea Peio Mugarza (txartelak apirilaren 27a arte).

LEHIAKETA

BERRIZ

» **X. Kaleko Pintura Lehiaketa**, apirilaren 25ean. Euskarriak Kultur Etxean zigilatuko dira, 09:00etatik 10:00ak arte. Leku berean aurkeztuko ditue margoak 14:00ak eta 14:30 bitartean. Sariak: 1.a 550 euro, 2.a 450 euro eta 3.a 350 euro. Lehenengo sailkatutako berriztarrarentzat 250 euro, lehenengo hiruen artean ez badago.

» **San Pedro eta Santa Isabel jaiak iragartzeko kartel lehiaketa**. Lanak Udal Liburutegian aurkezteko azken eguna maiatzaren 22a da. Sariak: irabazleak 300 euro lortuko ditu; herriko onenak, 100 euro.

DURANGO

» **Kontakizun laburren lehiaketa**. +Dendak Durango eta lurretako elkarteak eratuta. Gehienez, hiru orrialde bete leitez, euskaraz zein gaztelaraz. Sail bi sortu ditue: 18 urte artekoak eta 18 urtetik gorakoak. Sariak: 10 eta 200 euro arteko erosketa-baleak. Azken eguna apirilaren 24a.

» **"Zugan Ni" antzerki gaztearen lehiaketa**, apirilaren 29an, 20:30ean, San Agustin kulturgunean.

» **Gazte Bertso Txapelketaren**

lehenengo kanporaketa, apirilaren 24an, 21:00etan, Sapuetxe gaztetxean: Oier Aizpurua, Eneritz Artetxe, Aitor Urbietta eta Nekane Zinkunegi. Dispersinoaren aurkako hileko azken barikuko enkateladagaz bat eginda eratu dabe.

ELORRIO

» **"Zugan Ni" antzerki gaztearen lehiaketa**, apirilaren 30ean, 20:00etan, Arriolan.

ZORNOTZA

» **"Zugan Ni" antzerki gaztearen lehiaketa**, apirilaren 29 eta 30ean, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

LITERATURA

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur**

tailerra: "Txina", apirilaren 27an eta maiatzaren 4, 11, 18 eta 25ean, 18:15etik 20:15era, Udal Liburutegian. Aurretik, holan eskatuz gero, haurtzaindegi zerbitzua be eskainiko dabe (94 681 27 26 / biblioteca@iurreta.net).

MUSIKA

DURANGO

» **Russian Red**, apirilaren 24an, 22:00etan, Plateruenean.

» **Kontzertu lirikoa: Jose Antonio Urdiain eta Itziar Barredo**, apirilaren 30ean, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.



ERMUA

» **Gitarra kontzertua (Alboka musika eskolako ikasleak)**, apirilaren 28an, 19:30ean, Lobiano kulturgunean.

ZINE-KLUBA

BERRIZ

» **Umeendako zine saioa**, apirilaren 26an, 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **Zinema Uztartuz elkartearen eskutik: "El olor de la papaya verde"**, apirilaren 24an, 19:30ean, San Agustin kulturgunean.

ERMUA

» **Umeendako: "Viaje al centro de la Tierra"**, apirilaren 26an, 17:00etan, Lobiano kulturgunean. **Zine-kluba: "Camino"**, hilaren 30ean, 21:30ean.



Apirilaren 24an, 22:00etan

RUSSIAN RED-EN DOINUAK PLATERUENEAN

Folk eta pop erritmoak uztartzetik sortutako doinuekin osatutako *I love your glasses* diskoan batutakoak aurkeztuko ditu barikuan Russian Red ezizena baliatzen dauen Lourdes Hernandez gazte madrildarrak. Igaz plazaratu ebana gozatzeko aukera eskainiko deutse bertaratuko direnei, azken hileetan ezagun egin den 22 urteko gitarra-jotzaile eta abeslariak. Bilbon jo ondoren izango da Durangon, eta biharamunean Galizian eskainiko dau kontzertua.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

The International

Zuzendaria: Tom

Tykwier

barikua 24:

19:00 / 22:00

zapatua 25:

19:30 / 22:30

domeka 26:

19:30 / 22:30


astelehena 27:

19:00 / 22:00

martitzena 28: 20:00

Hanna Montana worlds concert (3D)

domeka 26: 17:00



ELORRIO

Arriola antzokia

Hablame de la lluvia

Zuzendaria:

Agnés Jaoui

zapatua 25:

22:30

domeka 26:

20:00

astelehena 27:

20:00



Umeendako zinema

Barriola, San Adriango azeria

domeka 26: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Slumdog Millionaire

Zuzendaria:

Danny

Boyle

zapatua 25:

22:00

domeka 26:

20:00

astelehena 27: 20:00



BOTIKAK

Barikua, 24

09:00-09:00

• Irigoien

(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

09:00-22:00

• Eguren, Isabel (Torresolo 4 - Abadiño)

Zapatua, 25

09:00-09:00

• Navarro (Artekale 6 - Durango)

09:00-13:30 (*14:00)

• Balenciaga / Campillo / San Roma /

Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego

(Durango)

• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)

• Irigoien

(Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*

• Balenciaga

(Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*

Domeka, 26

09:00-09:00

• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)

Astelehena, 27

09:00-09:00

• De Diego (Intxaurren 22 - Durango)

09:00-22:00

• Egaña (Bekoetxe 4 - Zaldibar)

Martitzena, 28

09:00-09:00

• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

Eguaztena, 29

09:00-09:00

• Campillo (Montebideo 24 - Durango)

09:00-22:00

• Balenciaga

(Berrio Otxoa 12 - Elorrio)

Eguena, 30

09:00-09:00

• Sagastizabal

(Askatasun Et. 19 - Durango)

09:00-22:00

• Bengoa

(Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112

DYA94 620 28 00

Gurutze Gorria94 681 09 49

Osakidetza94 600 72 00

Ertzaintza94 466 93 00

Suhiltzaileak112

GARRAIOAK

Euskotren.....902 54 32 10

Durango94 681 02 32

Bizkaibus94 448 40 80

Pesa902 10 12 10

Continental Auto945 286 466

TAXIAK

Abadiño946 814 470

Matiena606 459 988

Durango Geltokia.....946 811 001

Goco Tour946 202 860

Tele Taxi944 102 121

Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026

Elorrio Geltokia946 820 040

J.L. Uriarte ..670 402 002

I. Estebez670 678 273

M Galeano.....946 582 854

Iurreta946 201 565

UDALAK

Abadiño94 621 55 30

Atxondo94 682 10 09

Berriz94 682 45 84

Durango94 603 00 00

Elorrio94 658 27 12

Garai94 681 63 93

Iurreta94 620 12 00

Izurtza94 681 35 48

Mallabia943 17 14 61

Mañaria94 681 89 98

Otxandio945 45 00 20

Zaldibar94 682 70 16

UDALTZAINGOAK

Abadiño94 621 55 33

Berriz94 682 40 36

Durango94 603 00 10

Elorrio94 682 02 18

Iurreta94 620 08 88

BESTELAKOAK

Arriola94 658 31 92

San Agustin94 603 00 21

Zornotza Aretoa94 630 01 68

Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47

Errota KE94 466 94 16

Gorabide94 681 24 35

Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51

Nekazal bulegoa94 681 15 20

Uren Partzuergoa ..94 681 74 86

Butanoa (UME).....94 681 08 77

Araztegia94 620 28 00

Foru Ogasuna.....94 681 07 42

INEM Durango94 681 12 96

Gizarte Segurantz 94 681 49 58

Epaitegiak.....94 603 00 51

KIROLDEGIAK

Igerilekua

Astola94 620 29 29

Igerilekua

Atxondo94 623 14 38

Berriz94 682 43 74

Durango

(Landako).....94 621 51 30

Durango

(Tabira)94 621 51 50

Elorrio94 682 10 27

Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

26° BARIKUA



Egunak aurrera egin ahala iluntzen joango da. Goiz partean giro eguzkitsua nagusituko da. Egurditik aurrera, zerua estaltzen joango da, egun bukaeran euritara joz. Haize hotzak giroa freskatuko dau.

10° ZAPATUA



Euria eta tenperaturaren beherakada nabarmena espero doguz. Zerua lainotuta egongo da, tarteka zaparradak botaz. Temperatura dezente jaitsiko da, giroa hoztuz. Ipar-mendebaldeko haizeak bizi samar joko dau.

8° DOMEKA



11° ASTELEHENA



20° MARTITZENA





Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik-
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta
martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe gida



Agarreko Jatetxea

Industrialdea Arriaundi, Iurreta
Tel.: 94 623 26 04

160 lagunentzako jantokia.
Eskontzak, jaunartzeak, enpresako
bazkariak... Eguneko menua, karta,
menu bereziak.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
menua 11€



Zaldibarko Batzokia

Arangoiti 5, Zaldibar
Tel.: 94 682 78 14

Eguneko menua. Karta.
Gosariak. Razioak eta kazuelitak.
Ospakizunak.
Astelehenetik igandera zabalik.

KIROLAK >



Judit Fernandez

Kopan buru-belarri

Kulturala areto futboleant, lurretako futboleant, Tabirako saskibaloian, Durango Ilarduya errugbian eta Elorrio eskubaloian, Bizkaiko edo Euskadiko kopa lehietan murgilduta daude.

Domekan Bizkaiko Kopako sailkapen faseko hirugarren partidua jokatuko du Kulturalak, Soloarteren kantxan. Durangarrak multzoko lider dira, orain arteko partidu biak irabazita. Soloartek eta Leioak partidu bana irabazi dute; batek besteari irabazitakoa, hain zuzen ere. Kulturalak irabazten badu hurrengo faserako sailkatuta egongo da.

Lurretakoko emakumeek asteburuan ekingo diote Bizkaiko Kopari futboleant. Kasu honetan, ligaxka beharrean partidu bakarreko kanporaketak jokatuko dira. Lurretakok Enkarterri Nes-

kak taldearen zelaian jokatuko du asteburuan. Irabaziz gero, La Merced taldearen kontra jokatuko dute maiatzaren 3ko final hamaseirenetan.

Tabirakok lehia zaila

Saskibaloian Tabirakok garaipenarekin ekin dio Kopari. Irlandasas taldeari irabazi zioten Landa-kon. Aurreikuspenetan sartzen zen garaipena zen, nahiz eta uste baino gehiago kostatu zitzaizen partiduan sartzea.

Bihar berriro etxean jokatuko dute La Salleren aurka. Hauek dira multzoko talderik indartsuena. Aurten euren kontra jokatutako bi lehiak galdu dituzte. Tabirakok gazte eta kadete mailako jokalariai dit; oso talde gaztea, beraz. La Sallek berriz egindako jokalariai dit. Horregatik, uztai

azpia eta errebotea kontrolatzea zail izango dute.

Durango Ilarduyak 36-5 irabazi dio Euskotran Euskadiri; orain, multzoko lau talde -DRT barne- berdinduta daude bosna punturekin. Hurrengo lehia Spyro Bera Beraren kontrakoa dute.

Azkenik, Elorrio Eskubaloia Taldea Euskadiko Kopan ari da. Asteburuan jokatu beharreko lehen partidua, Muskizen kontrakoa, atzeratu egin dute. Maiatzaren hasieran jokatuko da. ■ J.D.

Kopako lehiak sartuta dago Durangaldeko hainbat talde

24 Goi mailako skate txapelketa

Hilaren 1ean eta 2an zirkuitu urbanorik erakargarrien pare 'mozorrotuko' dituzte Plateruena eta Landako Erakustazoka, puntako patinatzaileen gozagarri.

25 Dur&Go aurkeztu dute

Atzo egin zuten aurkezpen ofiziala, Durangoko Udaletxean. Irailean munduko eskalatzailerik onenetakoak batuko dira Landako Erakustazokan.

Goi mailako ikuskizuna, goi mailako patinatzaileekin

Plateruena kafe antzokiak IV. Plateruena Skate Txapelketa antolatu du maiatzaren 1ean eta 2an puntako parte hartzaileekin



Atzo eman zituzten Plateruenean txapelketaren inguruko xehetasunak.

Plateruena kafe antzokiak eta Landako Erakustazokak IV. Plateruena Skate Txapelketa hartuko dute maiatzaren 1ean eta 2an. Aurkezpen ekitaldian Ander Gorrotxategi zinegotziak azpimarratu zuenez, "Euskal Herri eta Estatu mailan erreferente bihurtu den txapelketa hau bultzatzea garrantzitsua da". Izan ere, munduko patinatzailearik onenetakoak batuko, beste behin, Durangon.

Skatearen jaia egun bitan banatuko da. Barikuan, afizionatuak eta profesionalak, biak batera ariko dira Plateruenean egokitutako moduluetan. Parkatu Street Txapelketarako izen ematea 11:00etan zabalduko da eta doakoa da. Parte-hartzaileak multzoka banatu eta 12:30etik aurrera 10 minutuko txandak izango dituzte lanerako. Lehen hiruen eta eguneko patinatzaile erregularrenaren artean 1.500 euro banatuko dituzte saritan.

Orain urte biko eta iazko txapeldunak etorriko dira

Zapatuan Landako Erakustazokara tokialdatuko da ikuskizuna, egunez behintzat. 25 metro zabal den Mini Rampa jarriko dute han: "Mini Ramp hori izate hutsa luxua da. Penintsula osoan ez dago holako arrapalarik jartzen den txapelketarik", zehaztu du Gaizka Izagirre antolatzaileak.

Mini Rampak den horretan luzitzen badu, patinatzaileek distira handiagoa emango diote euren salto eta akrobaziekin. Punta-puntakoak baitira. 60 bat patinatzaile profesional etorriko dira. Tartean dira Iban Rivado bilbotarra -iazko txapelduna- eta

Mini Rampa iazkoa baino bertikalagoa da, ikusgarritasuna ere areagotuz

Alain Goikoetxea algortarra - orain bi urteko irabazlea-. Horiez gainera, Aaron Swemind ingelese eta Jurgen Howard alemaniarra ere etorriko dira. Gainera, aurtengo Mini Rampa iazkoa baino bertikalagoa da: "Patinatzaileak gorago joango dira eta abiadura handiagoa hartuko dute".

12:00etan hasita, arratsalderara arte 10 minutuko saioak egingo dituzte. Finalerdien ondoren, 10 lagun pasatuko dira finalera. 8.000 euro banatuko dira horien artean. Trikimailurik onena (best trick) egiten duenak ere saria jasoko du. ■ J.D.

Jai-giroa >

Sagardoa Landako Gunean eta hiru kontzertu Plateruenean

Maiatzaren 2an Landako Gunean egingo den jaiak ez du alperrik Txotx III. Txapelketa izena. Euskal kultura ezagutaraztea ere bada asmoa. Ildo horretan, sagardo kupelak jarriko dituzte, zintzurra berotu nahi duenarentzat. Giroa berotzeaz txalapartariak arduratuko dira. Txapelak, zapiak eta kamisetak ere banatuko dira. Dena doan.

Egun berean, 21:30ean hasita, hiru musika kontzertu daude Plateruenean. Jaialdiari errematea emateko modu bikaina. Lehenengo, Bizkaiko Cobra eta Rhino taldeek metal eritmoak eskainiko dituzte.

Ondoren, Suediako Entombed talde mitikoa igoko da oholtzara. Sarrera aurrez erosita 18 euro da; bertan 20 euro.

Agustin Alkorta
• Futbol entrenatzailea



Kiroltasuna-lehiakortasuna

Aspaldi honetan futbol munduan eztabaida bat piztu da eta inork ez dau konponbiderik aurkitzen. Hau da: baloia kanpora bota behar da ala ez, jokalaria bat lurrean etzanda dagoenean? Denok dakigu kiroltasuna izan behar dela nagusi holako gertaeretan, baina denok dakigu jokalaria zein taldeak egoera horretaz aprobetxatzen direla. Irakurketa desberdinak egin daiegun:

- Badagoz taldeak aurretik abisatzen dabenak euren ez dabela kanpora botako baloirik. Ondo, baina talde horretako atezaina lurrean badago eta kontrarioak kanpora bota beharrean jaurti atera eta gola sartzen badau?

- Batzuen eritziz epailea da arduraduna, jokoa gelditu edo ez agintzeko. Ondo, baina niretzako hau ez da egokia, ze epaileek nahiko lan karga daukie beste bat gaineratzeko. Zergaitik ezin dogu denon artean konpondu?

- Ez dot ezagutzen jokalaria bat ez dena "tranposoa". Inozoak bai, onegiak be bai... baina gauza guztien gainetik kiroltasuna balore legez aplikatzen dabenik, inor be ez. Argi dago jokalaria lehiakorra izan gura badau argia, bizkorra, ernea, eta bizia izan behar dauela.

"Tranpa" horreek futbolaren zati garrantzitsua dira, teknika, taktika edo prestaketa fisiko eta psikologikoa legetxe, eta ezingo da sekula banandu horretatik. Gehiago esango dot: gaur egungo futbolearen berdintasuna da nagusi, eta detaile horreek izaten dira edozein neurketa batera edo bestera eroaten dabenak.

"Dibertitzen eta ondo pasatzen saiatuko naz"

- **Izen-abizenak:**
Alain Goikoetxea
- **Nongoa:** Algorta, 32 urte
- **Orain 2 urteko txapelduna**



Igaz Los Angelesko X Games-etan Munduko 15 onenen artean amaitu eban. Duda barik, faboritoen artean dago.

Igaz gaixorik etorri zinen eta ezin izan zenduen garaipena barritu. Zer sasoi puntutan zagoz aurtent?

Oso ondo aurkitzen naz. Dena dela, nire helburu nagusia ez da irabaztea izaten. Ahalik eta ondoen egiten saiatuko naz, baina dibertitzea eta ondo pasatzea dot helburu.

Aurtengo Mini Rampa bertikalagoa ei da.

Holan bada, garaiera handiagoa hartuko dogu. Ikusleentzat ikusgarriagoa izango da.

Ikusgarria izan ohi da tokirik onena hartzeko patinatzaileon arteko borroka be.

Batzuetan arrisku handiak hartzen doguz. Jakina, guk zenbat eta arrisku handiagoa hartu, orduan eta ikusgarriagoa ikusleentzat. Horregaitik ez dot gustuko lehietzea (barrez).

Plateruena Skate Txapelketa- ra izen handiak datoz.

Bai. Antolatzaileek interes handia ipintzen dabe, eta emaitzetan igarri egiten da. Espainia mailan Mini Ramp estiloko txapelketarik onena da nire ustez, eta Europan be onenen artean dago. Munichen badago beste bat oso ona dena. Oso antzekoak dira. Halan be, nik gurago dot Durangokoa.

Sagardoa be izaten dozue.

Egia da. Atzeritarrak ahozabalik geratzen dira. Kuriosoa egiten jake, baina gustagarria be bai. Gainera doakoa da...

Azken aspaldian kanpoan ibili zara.

Sarritan promozino bideoak grabatzen doguz, eta pare bat hila-beteen kanpoan ibili naz halakoxe bat grabatzen: San Diego, Miami, Kaiman irlak...

Durango eskaladaren gailurrera eramango du Dur&Go txapelketak

Atzo Durangoko Udaletxean aurkeztu zuten ofizialki irailean garatuko den ekimena



Antolatzaileak eta laguntzaileak batu ziren Dur&Goren aurkezpen ekitaldian.

Durango eskaladaren gailurrera eramango duen Dur&Go nazioarteko lehiaketa aurkeztu zuten atzo. Landako erakustazokan garatuko da irailaren 7tik 13ra; Durango lehiaketaren gune finko bihurtu nahi dute.

**Irailaren 7tik 13ra
izango da Landako
erakustazokan**

laz arte Diman ospatzen zen jaialdiak bi gune izango ditu. Erakustazokaren ondoko plazan txapelketa garatuko den rokrodro erraldoia jarriko dute. Gainerako ekimenak Landako barruan egingo dira. Block&Go delakoan eli-

teko zortzi eskalatzaile, ibilbide bana diseinatu, batak bestearen bidea igotzen saiatuko dira, tartean apustuak direla.

Herri Block izeneko ekimenak boulderra herriarrei zabalduko die. Horrez gainera, gaztetxentzako gunea egokituko dute, monitore eta eskalada-guneekin.

**Benetako haitzetan
egin nahi zuten
topagunea bertan
behera geratu da**

Jakinarazi dutenez, Landako erakustazokan mendi eta eskalada materialen inguruko standak ere egokituko dituzte, zaleek azken nobedadeen berri jakiteko.

Euskadiko txapelketarako pasea doakoa da. Beste hiru ekimenetarako (Climbing Master, Block&Go eta Herri Block) sarrera bateratua 15 eurokoa da. Ekimen bakoitzerako sarrera, berriz, 10 eurokoa. 12 urtetik behera koendako sarrera euro bat da.

Bestalde, benetako harroketan eskaladaren inguruko topagune bat egitea ere bazuten helburu, baina ekimen hori bertan behera geratu da, finantziario arazoengatik. Hala ere, datorren urtean berriro saiatuko direla adierazi dute. ■ J.Derteano

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Apurtarte

Zapatuan, 17:30etan,
Berrizburun
LEHEN ERREGIONALA
(gizonak)

Zaldia - Leloa B

Zapatuan, 18:00etan,
Solobarrian
BIGARREN ERREGIONALA
(gizonak)

Ezkurdi -

Amorebieta B

Zapatuan, 16:00etan,
Arripausuetan

ARETO-FUTBOLA

OHOREZKO B MAILA

Sasikoa - Elorrikoa

Buskantza

Domekan, 12:00etan,
Landako kiroldegian
LEHEN ERREGIONALA

Presion Break -

Abadiñoako Gaztetxle

Zapatuan, 17:00etan, Berrizko
kiroldegian

Mallabia Bastida - Arabella

Domekan, 17:00etan,
Zaldibarko kiroldegian
BIGARREN ERREGIONALA

Kurutziaga Ikastola -

Firestone Usansolo

Zapatuan, 16:00etan,
Landako kiroldegian

Dantxari -

Lagun Onak B

Zapatuan, 18:00etan,
Lanbide Heziketako
Institutuan

Mendibeltz -

Gu Lagunak

Zapatuan, 17:30etan,
Landako kiroldegian

SASKIBALOIA

BIZKAIKO KOPA

(emakumeak)

Tabirako Baqué -

La Salle

Zapatuan, 19:00etan,
Landako kiroldegian

PILOTA

BIZKAIKO HERRI ARTEKO

TXAPELKETA (Itzuliko
jardunaldia)

Berriz - Zornotza

Barikuan, 19:00etan,
Berrizko pilotalekuan
(Kanporaketa 2-1 dago
Berrizen alde)

Durango - Zalla

Zapatuan, 11:30etan,
Durangoko pilotalekuan
(Kanporaketa 2-1 dago
Durangoren alde)

Abadiño - Urduliz

Domekan, 10:30etan,
Abadiñoako pilotalekuan
(Kanporaketa 2-1 dago
Abadiñoaren alde)

MENDIA

DURANGO

Europako gailurretara Irteera, maltzaren 1etik

3ra; Alpino-Tabira mendizale
taldeak antolatuta.

Izen-ematea: hilaren 28an,
Alpinoren lokalean.
Bazkideek: 90 euro; bazkide
ez direnak: 125 euro

Pradera eta Guti omendu zituzten

Herriarrek eta zaleek, helduek zein gaztetxoek, omenaldi beroa eskaini zieten Mikel Pradera eta Fran Gutierrez "Guti"-ri, joan zen zapatuan Zaldibarran. 11:30etan Zaldibarko Udaletxe aurreko plazan batu ziren, eta Areitiotik itzuli bat egin eta zizka-mizka batzuk janda Goierriin batu ziren bazkaritara. Oroi-garriak ere banatu zizkieten txirindulari biei.



K. Aginako

Azken agurra eman zioten Jorge Oñateri

Joan zen domekan izan ziren Jorge Oñate Galarragaren omenezko hileta elizkizunak, Andra Marian. Jende asko batu zen Tabirako entrenatzaile izandakoari azken agurra ematera. 13 urte egin zituen Durangoko klubeko zuzendaritzan.

Oñate gaixotasun baten ondorioz hil da, 49 urte zituela. Bere anai Kike eta Karmelo ere Tabirako entrenatzaileak izan dira.



Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

• Oinetako patologiak

• Neurri-egindako plantillak

• Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON BERSANET SANITAS

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología 100. Eraginidea

EDERTASUN GIDA

Ileapaindegia

M^a JESUS LUQUE

• ileapaindegi unisexa •



**Kurutziaga
9 behea**

94 681 43 89
48200 Durango

Pilar Ruiz • ileapaindegia •



SABECO Zentro komertziala • Tel.: 94 681 03 96



• Rake Franco
• Adatz
ileapaindegia
dauka lurretan

Look aldaketak

Zer eskaintzen dozue zuen ileapaindegian? Zer helburu daukazue?

Denetatik egiten dogu. Guretat garrantzitsuena bezeroak dira; euren gura dabena entzun ondoren, euren gura daben hori lortzen saiatzen gara. Hori da gure helburua: euren pozik ikustea, egindako lanagaitik gu be pozik egon ahal izateko.

Bezera bati looka aldatzerakoan, zer hartzen dozue kontutan? Tintatzeko orduan, esate baterako...

Bezera ezagutzen saiatzen gara: zer kolore gura dauen, aurretik zeintzuk erabili izan dituen, zela-koa den bere ilea... Gero, berarentzat kolore egokiena aukeratzeko aholkularitza ematen gara.

Zer pausu jarraitzen dozue ilea mozteko?

Bezera normalean zelan orrazten den ikusten dogu lehenengo eta behin. Horren ondoren, zenbaterainoko aldaketa gura dauen galdetzen deutsagu, eta horren arabera, bere aurpegiaren forma lako faktoreak kontutan izanda, mozketa estilo bat ala bestea aukeratzeko aholkularitza ematen dogu.

Eta orrazkera bat egiterako orduan...

Lehenago aipatu dodan moduan, orrazketarako be aurpegiaren forma faktore oso garrantzitsua da: esate baterako, aurpegi luzanga eta fina daukan pertsona batentzako desfilatuak ez dira aproposak; ez jakoz ondo geratuko. Aldagai asko izan behar dira kontutan bezera bakoitzarentzat egokiena zer den jakiteko, baita bere guriak bete ahal izateko be.

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerlanukleo
Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 94

Adatz
• ileapaindegia •

- Irudi aldaketa
- Ilerako tratamenduak
- Fotodepilazioa

Zubiaurre, 4 behea • IURRETA • Tel.: 94 620 06 28

Estetika Zentruak

Virginia Ansorena • estetika •

- 38€-ko bonoa
- Aurpegi garbiketa
- Bekalaren diseinua
- Manikura
- %40ko deskontua izterondo eta besapetako fotodepilazioan



San Agustinalde, 1^aA-1^aC. 48200 Durango
Tel.: 94 620 29 78 Mbi.: 663 716 017

Ana Camarero • apaindegia •



- LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA
- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorpuz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1. esk. • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

FOTODEPILAZIOA

- Laser diodoa (azal beltzorano)
- Alejandrita (ile argia)
- Neodimio Yag
- Argi pulsatuak



DURANGO • Errealea kalea, 1 • Tel.: 94 621 39 29
GERNIKA • BARAKALDO • www.fotodepilaser.com

Cristina Agirre • apaindegia •



- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA (beroa eta epela)
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA
- MAKILAJEA
- MANIKURA • PEDIKURA
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER)

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

"PLAN PREVER-A" BUELTAN DA



GAURSA-n besterik ez

500€-ko

deskontua aukerako
autoetan eta
ia berrietan.*

* Auto ia berria edo aukerakoa erosterakoan, 10 urte baino gehiagoko autoa utzita, balio duen promozioa. Apirilaren 30a arte egindako eraketetan.

RENAULT OCASIÓN

GAURSA AUTOAK
ARRIANDI, 12 IURRETA TELF. 94 620 33 00 www.gaurisa.com



EZ GALDU MINUTURIKI!

KARROZERIA ERAGIKETA

FRANKIZIA DOHAINIK

KARROZERIA KONPONKETETAN

Ekainak 30a arte

Frankizia konponketetan karrozeria konponketetan, eta asanperatu konponketetan erabiltzeko erabakia. Irabazgarritasunaren 300€ gordineraren erantzukizuna. 1.2013. irabazgarritasunaren 300€ gordineraren erantzukizuna. 1.2013. irabazgarritasunaren 300€ gordineraren erantzukizuna.

RENAULT SERVICIOS

GAURSA AUTOAK
ARRIANDI, 12 IURRETA TELF. 94 620 33 00 www.gaurisa.com



IRAGARKIAK

LANA

- Eskaerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**

- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**

MOTORRA

- Salgai
- Erosi

LOKALAK



- Errentan eman
- Errentan hartu

ANIMALIAK

- Salgai
- Erosi

BESTEAK

- Berba egin
- Salgai



Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotako-ak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali ANB (tarte) eta zure iragarkia 7789 zenbakira. Mezu bakoitza: 1,2 euro + BEZ
- Deitu 94 621 79 02 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztu-ta eta lauki batean nabar-menduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

Interina lez edo kanpotik etorrita lan egiteko prest nago: nagusiak eta umeak zaintzeko edo tabernen garbiketarako. Orduka ere lan egingo nuke. Tel.: 680 302 861

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia lantegietan, zerbitzari bezala, umeekin... Tel.: 647 008 625

Emakumea geriatriako laguntzaile lan egiteko prest. Sukaldaritza eta informatika ikastaroak egindakoa. Tel.: 690 201 367

Emakumea etxeko lanak egiteko prest dago, orduka. Tel.: 627 468 002

Neska euskalduna, kotxearekin, edozein lan mota egiteko prest. Goizeko 9:00etatik aurrera astelehena eta asteazkena izan ezik. Arratsaldetan 7:30etatik aurrera. Tel.: 692 709 384

Lan Harremanetan diplomadun neska administrari, harreragile eta idazkari moduan lan egiteko prest. Esperientziaduna. Tel.: 677 153 135

Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita garbiketan lan egiteko ere. Egun osoan lan egitea nahi nuke. Tel.: 617 084 252 (Eliana)

Eraikuntzan edo soldaduran lan egiteko prest nago, baita zaintzan ere. Tel.: 686 054 186 (Jose)

Interina moduan edo kanpotik etorrita lan egin nahiko nuke. Erreferentziekin. Tel.: 636 852 059

Neska arduratsua etxeko lanetarako eta nagusien zein umeen zaintzarako prest dago. Tel.: 669 609 829

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Torre vieja erdialdean, logela bateko apartamentua salgai. Sukalde frantsesa du eta klimatizadorea ere bai. Los Naufragos hondartzatik 10 minutura. 63.000 euro. Tel.: 675 710 536

Elorrio. Baserrira salgai, bi etxebizitza eta txokoa ditu. Etxebizitza bat guztiz berriztuta, bestea erdizka. Txabola eta 6.000 m²-ko lursaila ere baditu. Tel.: 677 502 803 edo 699 846 219

ERRENTAN EMAN

Pisua alokagai Errioxan, San Vicente de la Sonsierran. Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta terraza ditu. Bista onak. Tel.: 657 734 019

OHARRA

Eroski Moviak ez du zenbaki laburretara mezuak bidaltzeko zerbitzua eskaintzen. ANBOTOK, kasu horretan, ez dauka inongo erantzukizunik.

Bakixako auzotar denentzako batzar deialdia:

Apirilaren 28an, martitzena, arratsaldeko 20:00etan, Bakixako Ermitan GAIA: Vodafone telefono konpainiak auzoan ipini nahi duen antena.

LANA

ESKAERAK

Pertsona bat behar da umeak zaintzeko, goizeko 07:30etik 11:30era. Umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Kotxea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Etxetresna elektrikoen denda berrian lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 77 13 52

Emakumea behar da, goizetan umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 618 896 591

Berriz. Esperientziadun estetizista behar da lan egiteko. Curriculumak aurkeztu. Tel.: 94 682 68 83

Pertsona bat behar da umeak eskolara eraman eta etxeko lanak egiteko. Derrigorra da kotxea izatea. Tel.: 660 723 602

Durango. Saltzailea behar da arropa denda batean lan egiteko. Gazteen moda. Derrigorra da 20-30 adin tartekoa izatea, euskaraz jakitea, Durangaldean bizitzea eta esperientzia izatea. Lanaldi erdia. Erreferentzia: 2.738. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Abokatua behar da gai zibil eta penalak eramateko. Derrigorra da Zuzenbidean lizentziatua izatea, esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.765. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durangaldea. Mungiako eraikuntza enpresa batek eraikuntza-obra arduraduna behar du Durango eta Zornotzako obretarako. Derrigorra da esperientzia izatea enkargatu moduan, segurtasuna eta lan-osasunean hezia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.766. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Igerileku-garbitzailea behar da udal kiroldagiko kanpoko igerilekuetarako. Derrigorra da elektrizitate eta iturgintzako ezagutzak izatea, igeri egiten jakitea eta euskara jakitea. Maiatzaren 11n hasteko, 4 hilabetetarako. Erreferentzia: 2.771. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Zerbitzaria behar da jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko. derrigorra da esperientzia izatea, kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.823. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Iurreta. Administrazio laguntzailea behar da. Derrigorra da alemaniera menperatzea (idatziz eta hitzez), kotxe karneta eta kotxe propioa izatea, informatikako eta kontabilitateko ezagutzak izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 2.871. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar du.

Durango. Aseguru-merkataria behar da. Derrigorra da ordutegi malgua izatea eta Durangaldean bizitzea. LH edo diplomatura eginda izatea beharrezkoa da, baita esperientzia izatea ere. Erreferentzia: 14.113. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emanda egon behar da.

ESKAITZAK

Emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. Tel.: 607 086 090

Durango neska umeak, etxeko lanak egiteko eta dendari lanetarako prest. Tel.: 639 036 653

Goizean lanaldi erdiz lan egiteko prest nago, nagusiak eta umeak zaintzeko edo garbiketan aritzeko. Erreferentziekin. Tel.: 650 610 194

Autonomo eta enpresa txikientzako aholkularitza: zergak, kontabilitatea, fakturazioa...Tel.: 655 725 252

Eraikuntzan, margolari laguntzaile moduan, lorezaintzan edo arotz moduan lan egiteko prest nago. Tel.: 696 356 551

Nagusiak zaintzeko prest nago, interina moduan edo kanpotik etorrita. Erreferentziekin. Tel.: 650 102 636

INMOBILIARIARIK



ETXEBIZITZA BERRIAK

- Andra-Mari: Apartamentu berriak eraikitzen.
- Zaldibar: Etxebizitzak eraikitzen.
- Abadiño: Txalel bifamiliarra lur eremuarekin.
- Atxondo: Adosatua lursailarekin.
- Atxondo: Baserrira salgai.
- Erretentxu: Adosatua eraikitzen.
- Erretentxu: Txalel bifamiliarra eraikitzen.
- Otxandion: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- Otxandion: Familia bakarreko etxea lursailarekin.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
- Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta)
- Kiriño: Halla, 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
- Komentu kalea: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia)
- Laubideta: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
- Mikeldi: Halla, egongela, sukaldea, egongela eta komuna.
- Herriko Gudari kalea: Halla, egongela-jangela, sukalde-jantokia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela eta 2 komun. Terraza. Trastelekua eta 2 kotxerentzako garajea.
- Monago Torren: Halla, egongela-jangela, 3 logela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua.
- Murueta Torre: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.
- Plateruen Plaza: Halla, egongela, sukaldea, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Frantzisko: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. 2 balkoi eta trastelekua.
- San Ignazio Auzunea: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- San Agustinalde: Apartamentu berriak salgai.

Otxandio. Pisu berria alokagai, trastelekua barne. 3 logela, komun bi, egongela, balkoia eta sukalde guztiz hornitua. Tel.: 655 726 760

Durango. Logela bat dut alokagai. Tel.: 659 749 084

Apartamentua alokagai Conilen. 3 logela, terraza, garajea eta igogailua. Tel.: 653 733 457

Apartementua alokagai Torreviejan. Urbanizazio pribatuan, gune berdea eta igerilekuekin. Hiru logela, komuna, sukaldea eta solariuma. Tel.: 615 779 622

ERRENTAN HARTU

Abadiño. Alokatzeko pisu bila gabiltza Zelaietan. Tel.: 699 295 914

IRAKASKUNTZA EMAN

Fisika ikaslea DBH edo batxilergoko ikasleei eskola partikularrak emateko prest: fisika, matematika, kimika... Tel.: 615 711 225

MOTORRA SALGAI

Renault Megane salgai. 2007ko abendukoa. Beltza da eta bost ate ditu. 2009ko abendua arte berme ofizialarekin. Diesela. 15.000 euro. Tel.: 655 712 105

Ford Galaxy 1900 tdi salgai. 130 zp, 2004ko maiatzekoa. 95.000 km. 7 jesarleku,17-ko llantak, gurpil eta

amortiguadore barriak. Margotu berria. Tel.: 636 339 971

Fiat Punto 1.200 salgai. Gasolinakoa. 1995 urtekoa da. 750 euro. Tel.: 667 746 645

Volkswagen California salgai. 2001eko abenduan matrikulatua. 140.000 km. Oso ondo ekipatua. 25.800 euro. Tel.: 656 785 827

Peugeot 306 salgai. 160.000 km. Egoera onean. 1998 urtekoa. 2.200 euro. Tel.: 679 389 783. Maxi.

Mini Cuper berdea salgai. 1991 urtekoa. 40.000 km. Extra asko. 6.500 euro. Tel.: 618 881 272. Javi.

Nissan Vanette Cargo zuria salgai. Oso egoera onean, ondo zaindua. Tel.: 689 02 46 47.

Suzuki Vitara 1900 Diesela salgai. Matrikulazio urtea 1999an. 168.000 km. Aurreko defentsak eta llantak aluminiozkoak ditu, eta bola be badauka. Deskaportable gogorra. Tel.: 616 333 017 edo 616 116 333

Renault Laguna 2.2 TD salgai. 1200 euro. Tel.: 652 709 440

ANIMALIAK SALGAI

Txakurkumak salgai, Mastin arrazakoak. Tel.: 94 681 50 37

Asto arra salgai. Urte bi eta erdiko da. Paperak ditu. Prezio onean. Tel.: 656 772 994

OPARI

Pedigreedun katu bi oparitzen ditut. Urte eta erdikoak. Bakunatuta. Tel.: 650 738 724

Txakurkumeak oparitzen ditut. Oso jostariak dira. Tel.: 679 290 896

BILA

Txakur baten bila nabil. Mar txoaren 8an galdu nuen. Lau hilabete ditu eta arratoi-txakurra da. Baten batek aurkitu badu, deitu telefono honetara, mesedez. Tel.: 665 731 417

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Durango. Tastelekua alokagai. 15 m2 ditu eta merkea da. Tel.: 629 415 416

Durango. 100 m2-ko lokala alokagai Alde Zaharrean. Edozein motatako negozioarako. Guztiz prestatua. Berehala lanean asteko moduan. Prezio merkea. Tel.: 615 794 459

Durango. 90 m2-ko lokala alokagai Barrenkalen. Edozein motatako negoziotarako. Berritu egin behar da. Prezio merkea, adosteko modukoa. Tel.: 615 794 459

BESTEAK

SALGAI

Karro denda salgai. Oso ondo hornitua eta zaindua. Tel.: 658 759 264. Ima.

Soinu mahaia salgai. ECLER MAC 2-4 markakoa. 100 euro. Tel.: 94 682 08 30

Bilbao BBK Live-erako 3 egunetako 4 bono salgai. 120 euro bakoitza. Tel.: 660 085 720

Lur-saila. 42.000 m2-ko basoa salgai. Oriol mendiaren azpian. Tel.: 600 313 200

Lur-saila. 13.500 m2ko lur-saila salgai Zaldibarren. Eraikitzeko aukerarekin. Prezio onean. Tel.: 629 419 411

Sutarako pago eta haritz egurra. Edozein neurritan salgai. Etzerako bidalketa. Tel.: 644 194 722

Oilagorretarako eskopeta. H Zabala-Vencedor modeloko paralela. 60 zm-ko kainoia. Eskuma estriatua eta ezberra lisua. Berri-berria. Tel.: 622 266 911

Lur-saila. Zornotzako Larrean lur-saila salgai. Laua, uragaz eta bideagaz. Argindarra bertan. Oso polita, errekagaz. Tel.: 94 622 51 75

Mendiko bizikleta. 2008ko dirt jumpeko scott voltage yz. Oso egoera onean (behin erabilia), 475 eurotan. Tel.: 655 706 713

Mendiko bizikleta. 2008ko scott gambler fr10 (DH/free ride). Oso egoera onean (goitik behera berrikusia). 2.375 eurotan. Tel.: 655 706 713

Trikitixa. 1.000 eurotan. Tel.: 687 281 981 (Iñaki)

EROSI

Basoa. Lur zati bat erosiko nuke Durangon edo Durango aldean. Ez zait axola txikia izatea edota leku ez oso

erosoan egotea. Tel.: 676 685 052 eta 660 369 973

Egoera onean dagoen CD erreproduzi-tzailea erosiko nuke. Tel.: 625 92 10 57

BEREZIAK

Biolin eta biolontxelo taldea ezkontze-tan jotzeko prest. Errepertorioa aukeran eta prezio onean! Tel.: 635 746 176

Munduko garagardo ezberdinen botilen txapa bilduma osotzeko txapak aldatzen ditut. Tel.: 695 452 194

Poltsikoko egutegiak badituzu, edo bildumak egiten badituzu deitu zenbaki honetara. Tel.: 665 718 061

Atxondo. Karabanak gordetzeko zerbitzua. 900 m2-ko lokala. Tel.: 618 608 908

Dantzariak ezkontza eta ospakizunetan aritzeko prest daude. Txalapartariak eta trikitilariak ere gehitu daitezke. Tel.: 617 084 902

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30etik aurrera. Tel.: 945 46 14 67 edo 615 723 077

Eskuko desbrozadorarekin garbiketak egiten ditut. Orduko kobratzen dut. Tel.: 619 552 202

Txistularia eta dantzaria eskaintzen dira ospakizunetan Agurra egiteko. Tel.: 605 732 108 edo 657 776 469



Urarka 1 behekoa • 48230 Elorrio Tel.: 94 682 00 41
Faxa: 94 623 16 30 • argiñeta@euskalnet.net • www.argiñeta.net

ETXEBIZITZA SALGAI

ELORRIO

18 TXALET ADOSATUEN PROMOZIO BERRIA NIZETO URKIZUN. ERAIKITZEN HASITA. PLAZATIK 200 M-TARA.

BERRIZ

PROMOZIO BERRIA. 2 eta 3 logelako 20 etxebizitza. P89: 90 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Trastelekua eta garajea. Eguzkitsua.

ATXONDO

PROMOZIO BERRIA.1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Leku onean. 44 etxebizitza.

ABADIÑO

C20: Txaleta. 193 m2 lau solairutan. 3 logela, egongela, sukaldea eta 4 bainugela. Garajea, txokoa eta atikoa. Berria.

ELORRIO

P49: 105 m2. Saloia, sukaldea, 4 logela eta 2 bainugela. Propanozko berogailua. Leku oso onean. P51: 80 m2. Saloia, sukaldea, 4 logela eta bainugela. Gas naturaleko kalefakzioa. Trastelekua. Leku ona. Prezio ona. P54: 111 m2. Saloia, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Gas naturaleko kalefakzioa. P55: 68 m2. Saloia, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Erdialdean. P63: 79 m2. Duplex: 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Igogailua. Ia berria. Gas naturaleko kalefakzioa. P64: 67 m2. Ia berria (3 urte): 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Garaje itxia eta trastelekua. P65: 30 m2. Ia berria. Atikoa: logela 1, sukalde-egongela eta komuna. Igogailua. Prezio ona. Gas naturaleko kalefakzioa. P69: 63 m2. Jauregi berritu baten, atikoa.Logela bat, sukaldea, egongela eta komuna. P72: Alde zaharrean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Guztiz berritzuta. P73: 80 m2. Duplexa: 3 logela, sukalde-saloia, 2 bainugela eta 2 trasteleku. Gas naturaleko berogailua. Dena barritzuta. Prezio oso ona.



Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel./Faxa:94 681 66 66 inmobisd@euskalnet.net
www.inmoduranguesado.com

ETXEBIZITZA SALGAI

- Askatasun Etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta trastelekuarekin 162.000+BEZ
 - 2 logela garajea eta trastelekuarekin 224.000+BEZ
 - 3 logela garajea eta trastelekuarekin 353.000+BEZ
 - 4 logela garajea eta trastelekuarekin, kontsultatu.
- Tabira: Luxuxko etxebizitza berrien promozioa.
- Berriz: Familiabakarreko etxebizitzak eraikitzen. 1.160 m2-ko lursaila.
- Zornotza: Erdialdean. 2 logela berritzatzeko.
- Berriz: 2, 3 eta 4 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Elorrio: 2 eta 3 logelako etxebizitza ezberdinak.
- Iurreta: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Matiena: 2 eta 3 logelako etxebizitzak.
- Durangaldea: Hainbat baserri eta txalet, Abadiñon, Atxondon, Berrizen, Durangon, Elorrian, Iurretan...
- Durangaldea: Lokal komertzialak. Aukera zabala
- Durangaldea: Pabilioi ezberdinak salgai eta alokairuan.
- Mañarian: Etxebizitza ia berria. Bizitzen sartzeko prest.
- Mañaria: Etxebizitza berriak estreinatzeko, erosi ia alokairu gisa.
- Zaldibar: Lur saila salgai. Eraikitzeko aukera.
- Zaldibar: Etxebizitza tasatuak. Zozketa gabe.
- Aramotz: 2 logela, egongela eta komuna. Bizitzen sartzeko prest.
- Aramotz: 3 logela, egongela eta 2 komun. Garaje bikoitza 28 m2 kanpoaldera ematen duena.
- Ezkundi: 3 logela, egongela, sukaldea eta barritzatu beharreko 2 komun.
- Askatasun Etorbidea: 3 logelako etxebizitza dotorea, egongela-sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- Askatasun Etorbidea: Duplexa. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Eguzkitsua.
- Landakon: 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta 2 terraza. Garajea eta ganbara. Bizitzen sartzeko prest.
- Fray Juan de Zumarraga: Duplexa.Ezin-hobea.
- Zabale: 90 m2-ko etxebizitza polita. Garajea eta ganbara. Eguzkitsua.



FRAY JUAN DE ZUMARRAGA, 4. 48200 DURANGO
TEL.: 94 681 40 40

ERAIKUNTZA BERRIAK

- Durango: ETXEBIZITZA BERRIAK SALGAI. Terrazarekin.
- Zaldibarren: Etxebizitzak garajearekin. Zozketa egin gabe tasatutakoak. 138.000 €-tik aurrera.
- Zaldibarren: 2 eta 3 logelakoak. 2 komun. Trastele-kua eta garajea. 228.400 €.
- Ermodo kalean: Eraikuntza berria. 105 m2. Guztiz kanpora ematen du. Ganbara, garajea eta trastelekua.
- Tabiran: Promozio berria. Luxuzko etxebizitzak.

ETXEBIZITZA SALGAI

- Mendizabalén: 2 logela eta 2 komun. Garajea aukeran.
- Antso Eztegiz: 3 logela eta 2 komun. Aukera ona.
- Trenbide kalean: Atikoa. 3 logela. Guztiz berria. 216.000 €.
- Urkiagatorre kalean: 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekua. 192.000 €.
- Andra Marin: Apartamentua. 162.000 €.
- Mikeldi kalean: Apartamento berria. Garajea eta trastelekua. 204.300 €(34 mill.)
- Askatasun Etorbidean: 3 eta 2 logela. 2 komun, egongela eta sukaldea. Berriak. Garajea eta trastele-kua.
- Komentu Kalean: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia.
- Murueta Torren: 90 m2. Berria. 3 logela. Terraza. Ganbara eta garajea. Aukera ona.
- Artzetagan kalean: Apartamentu berria garaje eta trastelekuarekin.
- Plateruen Plazan: Pisu altua. Erdi berria. Egongela beheko suarekin. Garajea eta trastelekua.
- Durangon: Txaleta. Estreinatzeko. 410 m2,4 solairutan banatuta. Lorategiarekin.
- Iurreta: 2 logela. Igogailuarekin. 198.300 €.
- Abadiño: Feria lekuan. 90 m2.
- Iurreta: Baserria. Guztiz berria. 3 solairu. 2.000 m2-ko lursaila.
- Abadiño: Txaleta. Bifamiliarra. 290 am2-ko lorategia.
- Matiena: Pabilioi berria. 400 m2. 10 m2-ko altuera. (Eroski ondoan).



San Agustinalde, 4 - 1 Eak.DURANGO
TF: 94 681 35 62 email: amboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZA SALGAI

DURANGO

- Apartamento berriak eraikitzen.700 € hilero.
- Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- Erdialdea: Apartamentu berriak. Logela bat edo bikoak. 172.000 €-tik hasita.
- San Inazio Auzunea: Berriztatu berria. 3 logela, (logela printzipala komuna eta jantzigelarekin), 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Aire girotua. Ganbara eta garajea.
- Bolivar: 2 eta 3 logelako etxebizitza berrien eraikuntza. Garaje itxiak.Durangotik 15 minutura. 174.000 €-tik hasita. ORDAINKETA MODUAK NEGOZIATZEN DIRA.
- Barrenkale: Azkeneko apartamentuak eta duplexak. Eraiki berriak.
- Franzisko Ibarra: Logela bakarreko apartamentua. Garaje eta ganbara. Berriztatuta.
- Askatasun Etorbidea: 125 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara, garajea eta trastelekua. Guztiz kanpora ematen du.
- San Inazio auzunea: 2 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela. Eraiki berria. Guztiz berria estreinatzeko.
- Astarloa: 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, eta komuna. Ganbara.
- Tabira: Estreinatzeko. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Garaje itxia eta trastelekua.
- Fray Juan de Zumarraga: 2 logela, sukalde-jantokia, egongela txikia eta komuna. Despensata.
- Juan Antonio Abasolo: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Prezio interesgarria.
- Zubiaurre: 2 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta garaje itxia.Guztiz berria.Estreinatzeko.

IURRETA

- 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiare-kin. Igogailua. Gas naturaleko berogailua. Prezio interesgarria.

DENPORAPASAK>

HITZ GEZIDUNAK >



Okertu	▼	Nagusi	▼	Usaintzeko modukoak
Gaizto, zital	▶	Arrasto, aztarna	▼	
Zarata	▶			
Larrua kendu				
Iruñeko bu- ruhandiak	▼	* Irudiko planeta	▶	▼
Arrain mota		Marrakak		
▶		▼		
Uzta eultzi- tzeko leku	▶			
Ukatzeko hitz				
▶				Kontso- nantea
				Nahi bizia
Galdakako herribururu	▶			▼
Aiuta sartu				
▶				.R bikoitza
				Bahetzeko tresna
Bi gehi bi	▶			.Aurrizkia
Naizen honek				Bizkaiko mendia
▶				Mortuko gune heze
				Meta, bo- kalik gabe
Bokala	▶	Mingaina	▶	▼
Ukazioak		Bokala		
▶		▼		

SUDOKU >

Zelan jokatu: Osatu taula (bederatzi koadrotan banatua), 81 lauki dituen (bederatzi lerro eta zutabetan jarriak), gela hutsak 1-9 arteko zenbakiekin betetz, lerro, zutabe edo koadro bakotxean zenbakirik ez errepikatze moduan.

1

	8	4	3		1		9
5				9	2	8	6
			8		7	4	2
						6	8
	2	3	6	7		5	4
8	7		5		4	3	
				2	6		5
4	9					2	3
6			1	4			7

2

			1		4		2	3
			5				1	9
7	8	1					4	
9	1			4				
		4	7					
8		7			2			
				1		4		
		8				7	3	9
	4		2	3				

ERANTZUNAK >

K	V	E	Z	L	V	K	U
V	I	H	I	M	•	V	•
I	S	V	O	•	K	I	N
R	E	B	•	U	V	T	•
R	R	•	U	T	U	I	V
V	E	Z	L	U	R	K	•
G	•	L	I	R	R	I	L
N	I	V	R	R	V	L	•
I	O	R	R	V	M	I	Z
V	R	R	U	L	•	K	•
S	L	O	H	•			
U	V	L	I	B			
•	P	•	B	•			

1	8	9	7	3	2	6	4	5
6	3	7	5	9	4	8	2	1
2	5	4	6	1	8	9	7	3
4	1	6	2	5	3	7	9	8
8	9	3	1	6	7	4	5	2
5	7	2	8	4	9	3	1	6
9	4	5	3	2	6	1	8	7
7	6	1	9	8	5	2	3	4
3	2	8	7	4	1	5	6	9

7

8	7	6	3	4	1	2	5	9
3	9	2	5	8	7	1	6	4
4	5	1	9	2	6	8	3	7
9	2	3	4	1	5	9	7	8
1	4	5	8	7	9	3	2	6
7	8	9	6	3	2	5	4	1
2	1	4	7	5	8	6	9	3
9	3	8	2	6	4	7	1	5
5	6	7	1	9	3	4	8	2

1

--	--	--	--	--	--	--	--	--

HOROSKOPOA >



Aries
martxoak 21 - apirilak 20

Amildegia be amaiera izan ohi dau. Bizitzaren gora-beheretan jokutzen ikasi beharko zeunke. Ez egizu etsi.



Leo
uztailak 21 - abuztuak 23

Bere keinu bat jaso dozulako, ez egizu pentsatu konkistatu dozunik. Fitxa gehiago sartu beharko dozu palankatik tiratu baino lehenago.



Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23

Usteak erdia ustel, eta ametsak beti amets. Ez egizu uste aurrekoan amestutakoa benetan bete egingo denik.



Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20

Erritmo azkarregia daroazu, gelditu be ez zara egiten. Datozen egunotan, hartu atsedenerako tartea; entzun reggae apur bat.



Virgo
abuztuak 24 - irailak 23

Oraindino gorputzeko molestia horreek kendu ezinik? Salda beroa eta lasaitasuna dira zure gatxaren erremedioa.



Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20

Zure inguruan aldaketak somatuko dozuz aste honetan. Batzuetan arriskatzea beharrezkoa izaten da gura doguna lortzeko.



Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20

Paradisuan zagozela uste dozu, baina kontuz bertan estankatzea-gaz, errealtatera itzultzean kolpea hartu gura ez badozu behintzat.



Libra
irailak 24 - urriak 23

Ordenagailuak birusa daukala dinozu, baina ez ete zara zeu izango birusa? Zaindu egizu hobeto konputagailua.



Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18

Ez egin txarto pasatzen zabilzen plantak. Atentzinoa behar badozu eskatu egizu laguntza, baina ez egin biktimarena.



Cancer
ekainak 21 - uztailak 20

Zenbat denpora looka aldatu barik? Haize freskoa komenigarria izaten da sarritan. Aldaketa erradikala be ez egin, halan be.



Scorpius
urriak 24 - azaroak 23

Gauzak astiro eta ondo, eta ez arin eta txarto. Presaka ibiltzeak ez deutsu ezer onik ekarriko, zuk sinistu ala ez.



Piscis
otsailak 19 - martxoak 20

Ez da ona beti parrandan ibiltzea, baina noizean behin ondo etortzen da. San Prudentzioak zuri itxaroten dago! Ondo pasatu lagunekin!

ZORION AGURRAK >

agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Santa Ana 6, 48200 durango



Zorionak, **Irati**, zure lehenengo urtebetetze egunean. Mosu handi bat Otxandioko aitita, amama eta osaba Unairen partez.



Zorionak, **Uxue**! Asteazkean hiru urte egingo dituzu. Zer neska handia! Txokolata-
da ederra egin. Etxekoen eta, batez be, Amaiurren partez.



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dogu. Horretara-ko beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia emotea.

Zorionak **Alaitz Areitiori**. Aste honetan zotz egin dogun tarta zeuri egokitu jatzu. Oparia jasotzeko txartela ANBOToko egoitzan dago eskuragai.

EKODEN



HORTZETAKO ASISTENTZIA

R.P.S. N°262/07


Jon Irazabal medikua (Mediku Estomatologoa - Zuzendari Medikoa). Elkargokide-zenb.: 667.
Javier Etxaniz medikua (Odontologoa - Implantologia). Elkargokide-zenbakia: 1114.
Susana Sierra medikua (Odontologoa - Ortodontzia). Elkargokide-zenbakia: 1084.
Ainhoa Zulueta medikua (Odontologoa - Odontologia). Elkargokide-zenbakia: 1211.

Gure profesional-taldeak goi-mailako prestakuntza du eta etengabe prestatzen dihardu gainera

Honako baliabide hauek ditugu: 3 kabinete handi, aho-barruko ganbera, erradiologia panoramikoko gela, indarreko arautuegiko kontrol zorrotzen arabera esterilizatzeko sistemak eta kabinete informatizatuak, besteak beste.



Hauxe eskaintzen dizugu: INPLANTOLOGIAKO TRATAMENDU AURRERATUAK, hala nola, "ALL ON FOUR" izeneko teknika (**4 inplante bakarrik, arkudura bakoitzeko**), ordenagailuaren bidezko kirurgiari onura atera diezaiozun, **HORTZAK EGUN BEREAN JARRIKO** zaizkizu eta. Hortz-protesia mugitzen bazaizu, hezurrean inplanteen bidez finkatzeko tratamenduak jartzen ditugu zure eskura.



Hauek ere eskaintzen dizkizugu:
ORTODONTZIAKO TRATAMENDU AURRERATUAK, MARRUSKADURA GUTXIKO BRAQUETen bitartez, ZURE HORTZAK URTE BATEAN BAKARRIK LERROKATZEN baitituzte. Edota **BRAQUET ESTETIKOAK, aukerakoak NAGUSIENTZAT**



FINANTZAKETA 12 HILETAN INTERESIK GABE

PREZIO BEREZIAK
mutualitateak, aseguruak, PADI...

Hortzetako Klinika. Instalazio Berriak dituen, non hortzetako sektoreko tratamendu aurreratuak aplikatzen ditugun. zure ekonomia ahuldu gabe, oso prezio lehiakorretan



Gure tratamendu guztiak, KALITATEKOAK ETA BERMATUAK

Prezioak Web Orrian Kontsulta Ezazu



ETENIK GABEKO ORDUTEGIA, 10:00etatik 20:00etara, ZURE ARRETA ERRAZTEKO

Arkotxa, 4 etxeba :: DURANGO :: 94 621 78 22

www.clinicaekoden.com

"Pipa bakotxak dauka bere nortasuna eta bere unea"

'Egin' itxita 'Euskadi Información' kopia bidez zabaltzea da sekula egin ez izana gurago leuken lana

Erdi eta erdi, Abadiño eta Elorriokoa da Julio Kamiruaga "Pipas". Erandion jaioa, Cenicero (Espainia), Oion, Dulantzi eta Durangon ikasi eban, euskara zigortuta zegoen sasoiaren. Italia eta Quebecen exiliatuta be egon da 1954an jaiotako nomada.

Ageriko galdera izan leitekeen arren, zer dela-eta "Pipas"?
Agerikoa, bai! Abadiñoa etortzean jarri eusten; badira 30 urte. "Kami" izan naz beti. Orain, ezin deusat pipan erretzeari itzi!

Beti erre dozu pipan?
Bai. Hogeitaka ditut, erositakoak eta oparitutakoak. Ia denak erabiltzen ditut. Behintzat, denak erabili ditut inoiz, unereren baten.

Baten bat une bereziatarako?
Denak dira unereren baterako: bakotxak bere pertsonalitatea dauka. Erretzeko beste era bat da pipa, lasaiagoa.

Eta itziko deusazu inoiz?
Hil aurretiko azken minutuan.

Kaosaren barruan gauza bakotxa non dagoen ba ei dakizu...
Halan da. Ez dakien horrena edo ikusi gura baina gai ez den horrena da arazoa. Baina, ordenatuenak be ez daki den-dena non den.

Ikasleak bezero onak dozuz, teknologia barriek ez dabe eragin?
Ordenagailuak papera kenduko ebala zinoen, baina ez da holan. Papera mantentzen da.

'Txuletek' be bai ...
Noski! Eboluzinoaren teorien hutsegite bi dagoz: amaren seme-alabekiko sentimendua: 50 urte-gaz be umea da; eta ikasleak: lehen, orain eta gero kopiatu egiten dabe. Ikastea aspergarria ei da.

Betikoa hori be...
Dinoenez, ikasle txarrik ez dago, irakasle txarrik baino. Taktikak aldatu beharko dira.

Hartu-emon publikoetan ona ei zara...

Kopistegia ileapaintzailea edo taxi-gidaria lez da: denetarik komentatu eta edozetaz berba egiten da, autu-mautu merkean jausi barik.

Atera dozu gura izan ez dozun kopiari?

Egin iterakoan kopia bidez zabaltzen genduen Euskadi Información. Gurago neuke lan hori sekula egin ez baneu, adierazpen askatasunaren aurka egiterik ez dagoela esan gura leukeelako. Susmatu izan dot kopia batzuren gainean be.

Badaukazu enkargurik gogoan?
Lehenengo koadernaketa, ezin txarragoa! Urteak pasatuta ikusi izan dot, gainera. Berez, kopistegia koka lan monotonoa da.

'Txuletek' apurtuko dabe hori...

Bai, baina, horren ohiko bihurtu da... Hau harategia zen lehen eta bardin jarraitzen dau. Irakasleak be etorri dira oposaketak direla-eta. Gitxiago be ikusten dogunez handiagoak, baina egin deusiedaz.

Ez ei da sasoi ona inorentzat...

Ez. Planoak, agiri piloa... igarri da %20 inguru igual.

Lehendakaria aukeratuko dabe.

Hauteskunde antidemokratikoen ondotik. Francok egiten eban herritarren zati handi bat bazertu, beste batek urtetako. Baina, nonork zabaltu deuse atea. Ez dot uste arazo ekonomikoa ez politikoa konponduko dauenik.

Euskara, gaintitu bako ikasgaia?

Ahalegindu naz eta beti geratu jat eztarrian Nor-Nori-Nork. Espainiako Errioxan, Ceniceron, hasi nintzen ikasten, gaztelaraz. Gero Oion, Dulantzin eta Durangon be bai. Euskara zigortuta zegoen.

Gero Abadiño eta Elorrioren, eta, tartean exilioan.

Italian urtebete inguru eginda, 1975eko irailean heldu nintzen Quebecera; gero, azaroan Franco hil zela be ospatu genduen. 78an etorri nintzen barriro Durangora.

Batera eta bestera...

Nomada naz. Polita da, gainera. Leku guztietan asko ikasten da, eta ona da modan diren arrazismoa edo etorkinak direla-eta sortutako egonezinak uxatzeko be.

Julio Kamiruaga

17 urte dira Elorrioren kopistegia daukala

Gaintitu bako ikasgaia dau euskara ikastea



Jose Julian Bakedano Zinegilea

Friderike Zweig

Atzoko munduan zera zioen Stefan Zweigek: "Egizue berba gomutok, hautatu zuek nire orde eta eman nire bizitzaren isla bat gutxienez". Horixe egin du bere lehen emazteak Nire bizitzaren bristadak memoria liburuan.

Friderike Zweig (Viena, 1882 - Stamford, 1971) Stefan Zweig idazle austriar handiaren lehen emazteak Vienako haurtzarora kontatzen du oroitzen apenotan; bere lehen ezkontza eta literaturarako dedikazioa gerora senar izango zue-narekin adiskidetasun estua garatu aurretik. Hogeita hamar urteko ezkonbizitza izan zen, Friderikek eragin erabakiorra izan zuelarik literaturaren historian gutxitan errepikatu den ospea lortu zuen autorearen pentsaera aldatu erradikalean, zeinak Brasilen bere buruaz beste eginez amaitu zuen hainbesteko etorriz gogoratu nahi izan zuen Atzoko mundua nazismoaren makinan garbitzaileak xehaturik zetzalarik.

Nire bizitzaren bristadak mundu horren bertsioa da, gizon handiaren atzean zegoen emakume handiaren begiratik; eta joan zen mendeko hainbat pertsonaia sonatuk (Rilke, Rolland, Schweitzer, Einstein, Gorki, Mann, Hesse, Toscanini...) euren paper heroiko, komiko, dramatiko zein txepelak jokatzen dituzten agertoki koloretsua ere bada. Baina gainera, eta batez ere, intelektual biren ibilera bizien parerik gabeko testigantza da, bigerra txikitxaileren mamuak loturiko Europan. Hirugarren atalean honela dio:

"Poztu nintzen lagunak erreskateagatik. Bainaguk-sei lagun eta Schuschu- geure buruazaindu behargenuen, eta Espainiako mugatik ahalik eta gertuen iritsi Euskal Herrian barrena"



maristak
Ikastetxea - Durango

TAILERRAK: 'Formazioa eskuartean'
Apirilak, 29, 5etatik - 8retara
'Batxilergoak eta Zikloak'

Euskadi



HETEL

informazio gehiago
www.maristak.com • 94 681 00 58
Abasolo 6, Durango 48200 Bizkaia
san-jose@maristak.com